

# **FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO BIDEA AZTERTZEN: ANGEL GANIVET-EN KASUA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Blanco Perea, David.

ZUZENDARIA: Comino González, Priscila.

**2021**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	1
2. Justifikazioa .....	2
3. Marko teorikoa .....	4
3.1. Oinarrizko kontzeptuak: familia eta eskola.....	4
3.1.1. Familiaren kontzeptua, funtzioak eta motak .....	4
3.1.2. Eskolaren kontzeptua eta funtzioak.....	5
3.2. Familia eta eskolaren arteko harremana.....	6
3.2.1 Definizioa, motak eta aukerak .....	7
3.2.2 Legeria.....	8
3.2.3 Familia eta eskolaren arteko harremana zailtzen dituzten oztopoak.....	9
3.3. Familia eta eskolaren harremanaren garrantzia haurren garapen afektibo, kognitibo eta sozialean .....	11
4. Helburuak .....	13
5. Metodoa.....	13
5.1. Prozedura.....	13
5.2. Ikastetxearen ezaugarriak .....	14
a) Angel Ganivet ikastetxea .....	14
b) Partehartzaileak - Taldea eta familien ezaugarriak .....	15
5.3. Tresnak .....	16
a) Familien eta eskolaren inplikazioa ezagutzeko tresnak.....	16
6. Emaitzak.....	19
6.1. Inkesten emaitzak.....	19
6.2. Elkarrizketen emaitzak.....	25
7. Ondorioak .....	30
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	34
9. Bibliografia .....	36
10. Eranskinak .....	41

## Resumen

Debido al constante cambio y renovación del sistema educativo, la relación entre padres y madres y la escuela supone un reto. En este trabajo se hará una reflexión sobre los conceptos de escuela y de familia, sobre la relación que se establece entre ambos y sobre los beneficios que supone para el alumno el hecho de conseguir una relación adecuada. El objetivo principal de este Trabajo de Fin de Grado es analizar en profundidad la relación entre la escuela Ángel Ganivet de Vitoria-Gasteiz y las familias de su alumnado de Educación Infantil. Para ello, se emplearon encuestas y entrevistas mediante las cuales se conoció la participación y la opinión de los padres y madres y de varios trabajadores del centro. Finalmente, en el trabajo se expondrán diferentes propuestas que pueden ser útiles en este caso para mejorar las relaciones entre colegio y familia.

**Palabras clave:** relación; padres y madres; escuela; participación.

---

## Laburpena

Gaur egungo hezkuntza sistemaren etengabeko aldaketa eta berrikuntzen ondorioz, guraso eta eskolaren arteko harremana erronka bat bihurtu da. Lan honetan eskola eta familien kontzeptuen inguruan, haien artean sortzen den harremanaren inguruan eta harreman egoki bat lortzeko haurraren garapenean izan dezakeen eraginaren inguruan eztabaidatuko da. Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia Vitoria-Gasteizko Ángel Ganivet ikastetxearen eta Haur Hezkuntzako ikasleen familien arteko harremana sakonki aztertzea da. Hori lortzeko, inkestak eta elkarrizketak erabili ziren eta horien bidez gurasoen eta zentroko hainbat langileen parte-hartzea eta iritzia ezagutu zen. Azkenik, kasu konkretu honetarako guraso eta ikastetxearen arteko erlazioa hobetu dezaketen hobekuntza proposamen desberdinak plazaratuko dira.

**Hitz gakoak:** harremana; gurasoak; eskola; parte hartzea.

## 1. SARRERA

Lan honetan, ikastegi bateko gurasoek eta bertako langileek ezartzen dituzten harremanetan eta haien elkarbizitzan jarriko da arreta. Horrela, lan honek harreman egoki baten alde egiten duen hezkuntza defendatuko du eta hezkuntza eredu horren oinarrietako bat hezkuntza inklusiboa da. Eskola inklusiboaren ezaugarri nagusietako bat komunitatea sortzea da, hau da, komunitateak bere osotasunean haurren hezkuntzan aktiboki parte hartzea. Parte-hartze aktibo hori gauzatzeko, beharrezkoa da eragindako erakunde guztiek koordinatzea eta indarrak batzea hezkuntza-kalitatea lortzeko eta proposatzen den hezkuntza-proiektua garatzeko (Del Águila, 2013).

Horrekin lotuz, ezinbestekoa da esatea familia eta eskola haurren hezkuntzan ezinbesteko bi oinarri direla, hauen hezkuntza eta sozializazio eragile nagusiak baitira. Biak arduratzen dira haurren lehen ikaskuntza ezartzeaz eta lotura afektiboak, atxikimenduak eta hezkuntza-erperientziak eskaintzeaz haien bizitzarako beharrezkoak diren edukiak eta balioak irakasteko helburuarekin. Horregatik, elkar ulertu, erlazionatu, funtzioak osatu eta elkarrekin lan egitea berebizikoa da.

Hala ere, erlazio honetan dagoen erronka zera da: nahiz eta ikastetxeetan jakin bien arteko kooperazioaren garrantzia, praktikan, batzuetan, ez da harreman hori modu eraginkorrean gauzatzen. Familiek gero eta parte hartzeko behar gutxiago dute eta denbora gutxiago eskaintzen diete seme-alaben heziketari. Eskolek, haien partez, nahiago dute familiek haien lan profesionalean parte ez hartzea. Jarrera horrek, Garretaren (2015) aburuz, bi instituzioen harremanetan eragiten du, beraien geldialdia eta narriadura sortuz, hots, aurrera egiten ez duen eta egungo gizarteak eskatzen eta behar duen mailara iristen ez den hezkuntza bat sortuz.

Hori kontuan izanik, lan honetan, familia eta eskolaren kontzeptua eta funtzioak azalduko dira, horien arteko harremanaren definizioa emango da harreman motak eta aukerekin batera, harremanari buruzko lege-markoa ikertuko da eta familia eta eskolaren arteko harremana oztopatu dezaketen faktoreak plazaratuko dira.

Hori behin amaituta, Angel Ganivet ikastetxeko guraso eta langileen arteko elkarbizitzari buruzko diagnostiko bat burutuko da eta ondorio gisa hori hobetzeko proposamen batzuk egingo dira.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Edonork ikusi dezake gaur egungo gizartea gero eta globalagoa dela; lehen uniforme eta homogeneoa zena, gaur egun konplexua eta askotarikoa izatera pasa da (Soriano, 2007). Gizartearen aldaketa horren ondorioz, familietan askotariko aldaketak eman dira; izan ere, antzinako familia tradizionalaren kontzeptua guztiz aldatu da eta hainbat familia mota berri sortu dira. Horien artean, guraso bakarreko familiak, aurreko bikoteetako seme-alabekin bizi diren familiak edo familia zabalak daude (Dabas, 2007).

Baina familiak ez dira izan aldaketak pairatu dituzten bakarrak, eskolek ere horiek jasan dituzte; hala nola, teknologia berrien inplementazioa, metodologia berritzaileak eta orain bizitzen ari diren irakasleriaren berrikuntza.

Berrikuntza eta aldaketa guzti horiek, nabaria denez, ondorioak ekarri dituzte familien eta eskolen arteko erlaziora. Lehen, bien eginkizuna argia zen, familiak seme-alabak hezteaz arduratzen ziren eta eskolek, aurretik finkatutako irizpide batzuetan oinarriturik, eduki eta ezagutza batzuk transmititzen zituzten. Orain, gizartearen pentsamolde aldaketaren, irakasleen botere- eta autoritate-postuaren galeraren eta bi instituzioen interes eta itxaropen desberdinen ondorioz, eskolen eta familien arteko talka ugari sortzen dira eta hori dela eta, bien arteko ulertezintasun egoera ezarri da (Bolívar, 2006).

Aipaturiko talka horiek nahiz eta urteetan zehar eztabaida iturri izan, zaila izan da egoera hobetzeko helburuarekin ganorazko proposamenak egitea. Hori, gaur egungo hezkuntzaren erronka zailenetako bat da; izan ere, bien arteko adostasunaren beharra gero eta nabariagoa da kontuan edukiz eskolek behar handi bat dutela gizartearen eta familien eskariei erantzuteko eta aldi berean, familiek harremana hobetzeko beharra dute haien seme-alaben gaineko erantzukizunean galdurik sentitzen direlako, batez ere hezkuntza premiei eta prozesuei dagokienez (Bolívar, 2006).

Horrela, gai hau Gradu Amaierako Lan gisa hautatu dut eta hau xedatzearen arrazoia, azaldu berri den bezala, familiek ikastetxeetan duten eginkizunarekin, haien parte hartzeak duen esangurarekin eta haien inplikazioa handitu behararekin erlazonaturik dago.

Horrekin batera, gradu osoan zehar, etorkizunari begira, familiekin modu arrakastatsu batean lan egiteko argibide, irakaspen eta ezagutzen falta igarri dut. Soilik irakasleriaren ehuneko oso baxu batek gai hau modu espezifikoa landu du bere klaseetan eta, nahiz eta suposatuta zeharkako modu batean eskuratzen den jakintza bat dela, gurasoek haien seme alaben hezkuntzan zein ikastetxean bertan duten pisua ikusita, beharrezkoa ikusten dut gaiaren inguruan sakonago hausnartzea.

Hori dela eta, alde batetik, lan honek bilatuko duena aipaturiko familia eta eskolen arteko erlazioa aztertzea eta horretan topaturiko talkei konponbide bat bilatzea izango da. Hori egiteko, ikerketa sakon bat aurrera eramango da eskolak eta familiek ezartzen duten harreman motaren inguruan. Bestetik, irakurle oro kontzientziaztea nahi du eta irakasle diren edo izango direnen jakintzak eta gaitasunak handitu nahi ditu erronka honi aurre egiteko baliabideak izateko; amaieran proposatuko direnak bezala.

Aurrekoarekin bat eginez, gai hau landu nahi izan dut aniztasun kultural handia dagoen eskola batean; horregatik, lana Vitoria-Gasteizko Angel Ganivet ikastetxean egitea erabaki dut. Horrela, beste jatorri bateko familiek duten kezken, eskaeren eta nahien inguruan ikertu ahal izango da, familia hauei ahotsa emanez. Horretaz gain, lana baita eskolako zenbait organismoen iritzien inguruan ere kezkatuko da; ahalik eta ikuspegi objektiboena emanez eta bi aldeen iritzia plazaratuz. Horrekin batera, argitu beharra dago, prozesua nire praktika egonaldian zehar burutu dela, horrela eskuragarriago izateko bertan egingo diren azterlan guztiak.

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. Oinarrizko kontzeptuak: familia eta eskola**

Haur baten hazkuntza eta hezkuntza prozesuan zehar esangura handia duten bi instituzio nagusi daude; horiek eskola eta familia dira. Nahiz eta bi horien funtzioak independenteak direla eman, elkarren beharra dute ikasleen hezkuntza prozesua arrakastatsua izateko. Aguadok (2010) esaten duen bezala, egokiena familiaren eta ikastetxearen arteko hezkuntza-proiektu komun bat sortzea izango litzateke, eman nahi duten hezkuntza motari erantzutea ahalbidetuko lukeena, baita hori lortzeko behar dituzten bitartekoak eta tresnak ere.

Aipaturiko lankidetzak eta laguntza erlazioa nahiz eta familientzat eta ikastetxearentzat ezinbestekoa izan, gaur egun erlazio hori ez da modu natural eta egoki batean ematen eta horregatik beharrezkoa suertatzen da bi instituzioek kooperazio erlazioaren garrantziaz kontzientzia hartzea (Del Águila, 2014).

Hala ere, familia eta eskola harremana aztertu baino lehen, bi horiek banaka definituko dira, horien funtzioak eta motak zehaztuz.

##### **3.1.1. Familiaren kontzeptua, funtzioak eta motak**

Familia bizitza proiektu bat partekatzen duten pertsonen elkarrekin da, zeinean talde horrekiko pertenezko sentimendu sendoak sortzen diren, bertako kideen artean konpromiso pertsonal bat dagoen eta elkarrekotasun, intimitate eta dependentsia harreman biziak ezartzen diren (Palacios eta Rodrigo, 1998). Horri, Gonzalezek (2015) gehitzen dio familia haurraren behar nagusiak asetzen dituen taldea dela, bere garapen kognitiboa, afektiboa eta soziala arrakastatsua bilatzeko.

Familiak umeengan duen funtzioen zerrenda zabala da. Familiak umea jaiotzen denetik zaintzen du bere beharrak asetuz eta maitasuna, segurtasuna eta etorkizunean autonomia eskuratzeko eta gizartean moldatzeko baliagarriak izan daitezkeen ezagutzak eskainiz (Blanco, 2014). Gainera, familia haurrarekin harremanetan jartzen den lehenengo entitatea da; horrela, lehenengo sozializazio agentean bihurtuz. Faktore hori erabakigarria da umeak balio, arau, ohitura eta ikaskuntza esanguratsuak eskuratzeko, gizabanako zintzoa izateko eta gizarteko edozein testuingurura moldatzeko (Amador, Gómez, Londoño eta Pérez, 2018). Horretaz gain, familia eguneroko bizitzako esperientziak irakasteaz, hezteaz eta zerbitzatzeaz arduratzen da. Bertan, haurrek lehen lotura afektibo eta emozionalak finkatzen dituzte eta oinarrizko arau eta jokabideak ikasten eta eskuratzen dituzte (Blanco, 2014).

Familia motei dagokienez, eredu tradizionaletik urrun, gaur egun familia mota anitzak topa daitezke gizartean. Horretan oinarrituz, Benítezek (2008) familia motak azpitalde hauetan banatzen ditu.

- Familia nuklearra: aitak, amak eta seme-alabek osatzen dute oinarrizko familia-unitatea.
- Familia zabala: unitate nuklear bat baino gehiagoz osatuta dago, bi belaunaldiz haratago hedatzen da eta jende kopuru handiaren odol loturetan oinarritzen da guraso, seme-alaba, aitona-amona, osaba-izeba, lehengusuak, etab. barne hartuz.
- Guraso bakarreko familia: gurasoetako batek eta haien seme-alabek osatzen dute. Familia mota honek hainbat jatorri izan ditzake: gurasoak dibortziatu direlako eta seme-alabak gurasoetako batekin bizi direlako, bizikide baten heriotza dela eta, etab.
- Guraso bananduen familia: gurasoak dibortziatu diren familia. Hemen, normalean elkarrekin bizitzeari uko egiten diote. Ez dira bikoteak baina gurasoen papera betetzen jarraitu behar dute.

Sailkapen horri, Lópezek (2016), beste bi familia mota gehitzen dizkio.

- Familia homoparentala: bikote homosexual batek eta guraso baten edo bestearen seme-alabek edo komunean adoptatukoek osatutako familia.
- Familia berreraikia: guraso banandu edo alargun batek eta haien seme-alabek eta bere egoera berdinean dagoen beste batek eta bere seme-alabek osatutako familia.

Horrela, gizartearen garapen eta globalizazioarekin batera familia mota anitz sortu direla begi bistakoa da.

### **3.1.2. Eskolaren kontzeptua eta funtzioak**

Eskola instituzionalizaturik dagoen eta hezkuntzaz arduratzen den komunitate espezifikoa da; hortaz, eskola hezkuntza ematen, betetzen eta antolatzen duen lekua da. Urteetan zehar eskolaren kontzeptua aldatu da gizartea aldatzearekin batera eta gaur egun, esan daiteke, eskola, komunitatearen bizimodu gisa hartzen dela; hau da, eskolak ikasleak haien gaitasunak erabiltzera eta hobetzera bultzatzeko beharrezko balioak transmititzen ditu (Crespillo, 2010). Azken ideia horri, Fernándezek (2007) gehitzen dio gaur egun eskolaren funtza ez dela soilik irakastea, baizik eta baita hezteka ere.

Eskolaren funtzioak zazpi azpiataletan bereizi daitezke, hurrenez hurren azalduko direnak:



- Funtzio berdintzailea. Eskolak desberdintasunak konpentsatu behar ditu eta horrek aniztasunean heztea suposatzen du. Helburua jadanik ezarrita dauden desberdintasunak orekatzea da, ez horiek handitzea (Gimeno, 2000).
- Funtzio integratzailea. Eskolak ikasle bakoitza taldearekiko elkarreraginean hezi behar du eta ez bazterketan. Horrek beren ezaugarrien eta aukeren arabera heztea esan nahi du, berdintasunean heztea ez baitu esan nahi denak modu berean heztea, baizik eta guztiek aukera berdinak izatea kalitatezko hezkuntza jasotzeko (López, 2011).
- Funtzio sozializatzailea. Ikasleak gizartearen jarduerari, kulturari eta haien inguruko testuinguruari egokituz heztea ez du esan nahi haurrak jadanik ezarrita dagoen munduarekin bat etorri behar direnik. Funtzio honek bilatzen du ikasleak heztea modu kontziente, kritiko eta autonomoan egokiak diren balioak, arauak, portaerak eta jarrerak aukeratzeko eta horiek aurrera eramateko (Gimeno, 2000).
- Funtzio hezigarria. Funtzio honek ikasleen garapen kognitiboa, parte-hartze demokratikoa eta ikaskuntzaren bilaketa intelektual sustatzea bilatzen du (Vizcaino, 2010).
- Ongizate pertsonala ziurtatzea. Gaur egungo gizartean nagusi diren balioetatik abiatuta, ongizate pertsonala bilatu behar du eskolak. Balio materialen, ospearean eta lehiakortasunaren aurrean, ikastetxeek elkartasuna, tolerantzia eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza bilatu behar dute (Martín, 2000).
- Kritikotasuna sustatzea. Eskolak ikaslearen hazkunde intelektual, espiritual, moral eta pertsonalean lagundu behar du, pentsamendu kritikoa eta objektiboa garatuz (Martín, 2000).
- Autonomia ziurtatzea. Eskolak ikasten ikasteko teknika sustatu behar du ikasleak etorkizuneko ikasketak haien kabuz burutzeko ahalmena izan dezaten (Martín, 2000).

### **3.2. Familia eta eskolaren arteko harremana**

Gaur egun ikastetxearen hezkuntza funtzioa berretsi behar bada ere, zalantzarik gabe, arazo larriak daude hori gauzatzeko. Eskola ez da hezkuntza testuinguru bakarra, ezta bertako irakasleak eragile bakarrak ere; izan ere, familiak hezkuntza paper garrantzitsua betetzen dute. Horrela, hezkuntza ingurune hedatu batean, informazioaren gizartearen barruan, eskolak bakarrik ezin ditu herritarren prestakuntza behar guztiak ase eta, hori dela eta, eskola eta familien arteko harremanaren azterketa ezinbestekoa da, hori ikertuz gero, hobetzeko aukera egon daitekeelako (Bolívar, 2006).

### 3.2.1 Definizioa, motak eta aukerak

Familia eta eskolaren arteko erlazioa aztertzeko, berez, familia-eskola partehartzea zer den zehaztu behar da. Horrela, Parrak (2004) partehartzea pertsonen kooperazioa behar den ekintzetan pertsona horien inplikazio prozesua dela dio.

Hori argi izanda, hezkuntza arloan partehartzea familia eta eskola ingurunearen arteko laguntza eta lankidetzak bideratzeko bitartekoa dela esan daiteke (Rivas, 2007) eta horrek, inplikazioa, konpromisoa eta kolaborazio aktiboa eskatzen du (Fernández, 1995).

Horrela, beharrezkoa suertatzen da eskolek eta familiek kezkek partekatzea eta hezkuntzari, eskolari eta umeei buruzko informazioa eta pentsamenduak elkar trukatzeko. Hori eginez, familiak eskolarekin komunean hartutako akordioak aurrera eraman behar ditu eta eskolako ezagutzak eguneroko bizitzan inplementatu behar ditu. Bestetik, eskolak, adostutako helburuak haur bakoitzari transmititu behar dizkio eta familiako eguneroko ezagutzak eskolako bizitzan aplikatu behar ditu, hezkuntza formalaren eta ez formalaren arteko erlazioa eta batasun hori eta espero den eraginkortasuna lortzeko (Domínguez, 2010).

Thornburg eta Wiseren arabera (1978) familia-eskola harreman motak sei ereduetan sailkatu daitezke:

1. Ereduak familia hezkuntza-iturri bakartzat jotzen du eta iraganeko etxearen estereotipoari dagokio, non familiaren funtzioak guztiz afektiboak ziren.
2. Ereduan etxea hezkuntza-iturri nagusitzat hartzen da, baina ikastetxetik emandako laguntzaren garrantzia aintzat hartzen da.
3. Ereduak bi erakundeak garrantzitsu gisa aitortzen ditu eta bien elkarlanaren beharra azpimarratzen du.
4. Ereduan eskola da lehen eragilea eta hezkuntzaren ardura du.
5. Ereduan ikastetxea eragile eskusiboa da, non irakasleriak zentroaren helburuak, jarduteko edukiak eta curriculumak zehazten dituen eta, beraz, gurasoek soilik ikastetxeak eskaintzen diena onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartzen dute.
6. Ereduak familia eta eskola hezkuntza prozesuan nagusi den barne indar baten eraginpean daudela uste du.

Familiaren eta ikastetxearen arteko komunikazioa eta harremana erraztu eta ahalbidetzen duten aukera eta estrategia desberdinak daude.

Alde batetik, familiak ikastetxean parte hartzeko organoak daude. Familiek hezkuntzan parte hartzeko lehenengo organoa IGE (*Ikasleen Guraso Elkarte*) da. Hau gurasoen eskubideak defendatzen dituen partaidetza organoa da eta gurasoen ekintzak eta jarduerak suspertzeaz arduratzen da (Maestre, 2009). IGE familia eta eskolaren elkarbizitza hobetzeko funtsezko

elementu bat da; izan ere, lankidetzan aritzen da ikasleen heziketa osatzeko, eskolan eguneroko bizi errazteko eta familia kontziliazioan laguntzeko (Martín, 2017). Bigarrenik, Eskola Kontseilua dago. Hau gobernuaren organo bat da zeinak familien eskubidea ikastetxe publikoen kontrol eta kudeaketan parte hartzeko ahalbidetzen duen. Honek gurasoei eskubidea ematen die hezkuntza-proiektua eta zentroaren urteko programa orokorra ebaluatzeko, zuzendaritzarako hautagaitzak ezagutzeko eta zentroaren zuzendariaren hautaketan parte hartzeko (Gracia, 2016). Azkenik, guraso eskolak daude. Hauek familiak hezitza eta trebatza bideratutako erakundeak dira, hezkuntza-funtzioak zuzen bete ditzaten (Maestre, 2009). Hauen helburu nagusia haurren garapenari, ikaskuntzari eta sozializazioari buruz informatzea, aholkatzea eta orientatzea da (Cataldo, 1991).

Beste aldetik, familia eta eskolaren arteko buruz buruzko harremana dago, hainbat ataletan banatu daitekeena. Lehenik, banakako elkarrizketak edo tutoretzak daude. Huetara gurasoak eta tutorea bakarrik joaten dira eta ikaslearen errendimendu akademikoari, jarrerari, portaerei eta harremani buruz informatzea da hauen helburu nagusia. Gainera, hauek erabilgarriak dira ikaslearen eta bere ingurunearen informazioa biltzeko, ikaslea laguntzeko estrategiak diseinatzeko eta familien parte hartzea sustatzeko (Alía, Blanco, de la Hoz eta Gómez, 2015). Bigarrenik, talde elkarrizketak daude. Hauek ikasleen guraso guztiekin batera aurrera eramaten dira, irakaslea da hitza eramaten duena eta modu orokorrean hitz egiten du kurtso gaien inguruan. Elkarrizketa huetan normalean kurtso akademikoaren berri ematen da horren helburu, eduki eta erronkei dagokienez (López, 2009). Azkenik, guraso eta irakasleen artean gerta daitekeen kontaktu informala dago. Horren barruan, ohikoena izango litzateke irakasle eta gurasoen artean ematen diren elkarrizketak haurra ikastetxera eramatean edo jasotzean. Hauek baliagarriak dira informazio konkretua partekatuzko (González, 2015). Baina, horretaz gain, agendaren bitartezko edo mezu elektronikoen bidezko kontaktua dago (Garreta, 2015).

### **3.2.2 Legeria**

Egiaztatu daiteke 1825eko otsailaren 16ko Eskola Planarekin lehenengo aldiz nazio mailan kontuan hartzen hasten dela gurasoen parte-hartzearen aitortza "Herri Eskola Kontseiluen" bidez (Gómez, 2006).

1978ko Konstituzioan gurasoak hezkuntza instituzioen partaidetza organoen parte izatea bermatzen da. *"Eskubideak eta askatasunak"* izeneko 1. ataleko 27.7 artikuluan zehazten da *"Irakasleek, gurasoek eta, hala badagokio, ikasleek parte hartuko dutela Administrazioak fondo publikoekin babestutako zentro guztien kontrolean eta kudeaketan"*. Hortaz, bertan dago guraso eta eskolen arteko erlazio horren jatorria.

Gaur egunera etorri, indarrean dagoen *Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la Calidad Educativa* (LOMCE) legeak dio ekitatea eta kalitatea bermatuko duen hezkuntza lortzeko, honako honen alde egin behar dela: *“Hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta ikasleen, familien, irakasleen, zentroen, administrazioen, instituzioen eta gizartearen ahalegina beharrezko osagai bat da ekitatea bermatzen duen kalitatezko hezkuntza bat lortzeko”*.

Horrekin batera, LOMCE legeak beste zenbait artikuluetan parte hartzearen behar hau gehiago garatzen eta azaltzen du.

LOMCEK 118.1 artikuluan parte-hartzea herritar arduratsuek trebatzeko oinarrizko balioa dela defendatzen du: *“Parte hartzea oinarrizko balioa da herritar autonomoak, askeak eta arduratsuek eratzeko; Konstituzioaren printzipioekin eta balioekin konprometiturik daudenak”*.

Bestalde, 119.4 artikuluan honako hau esaten du guraso zein ikasleen parte hartzeari buruz: *“Gurasoek eta ikasleek zentroen funtzionamenduan ere parte har dezakete beren elkarleen bidez. Hezkuntza administrazioek haiei zuzendutako informazioaren eta prestakuntzaren alde egingo dute”*.

Hori ikusita, San Fabianen (2006) arabera, gaur egun gurasoen parte hartzea zentroetan hautaketa gisa ikusten da, non gurasoek erabaki dezaketen modu zuzen eta aktiboan eskolan parte hartu. Hala ere, hau, hautaketa bat izateari uzten dio kasu konkretu batean. LOMCEko 71.4 artikuluan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen inguruan esaten du: *“Hezkuntza administrazioen erantzukizuna da hezkuntza prozesuetan eragina duten erabakietan gurasoen edo tutoreen parte hartzea bermatzea”*.

### **3.2.3 Familia eta eskolaren arteko harremana zailtzen dituzten oztopoak**

Nahiz eta eskola eta familiaren arteko harremana funtsezkoa izan eta ikasleen garapen osoa lortzeko beharrezkoa izan, askotan, zailtasunak daude elkar ulertzeko; izan ere, hezkuntzaren alderdi batzuetan ikuspegi desberdinak daude, elkarlanean jarduteko oztopoak sortzen dituztenak. Oztopo horiek bi multzotan sailkatu daitezke: familiek ikastetxeekin lankidetzan jarduteko dituzten zailtasunak eta ikastetxeek familiekin elkarlanean jarduteko dituzten zailtasunak.

Lehenengo horiekin hasteko, familiek jartzen dituzten oztopoak askotarikoak dira. Garreta (2015), Kñallinsky (2003) eta Potarren (2014) arabera, guraso batzuen bizimoduek edo haien lan ordutegiak eragozten dute eskolatan parte hartzea. Beste batzuek, ordea, sentitzen dute ez daukatela seme-alabak laguntzeko jakintza nahikorik eta horrek irakasleekin ez

erlazionatzera darama, sentitzen dutelako ez dutela hezkuntza arloko hizkuntza ulertuko. Beste askotan, haien motibazioa eta interesa eskasa da. Badira jarrera itxia duten gurasoak ez direlako fidatzen eskolak haien seme-alabei ematen dien heziketaz eta horrek suposatzen du ikastetxearen funtzionamenduaren inguruan ezer ez jakitea nahi. Beste batzuetan, familia eta ikastetxearen balioak desberdinak dira eta horrek familiek eskolara ez hurbiltzea suposatzen du. Muturreko zenbait kasuetan, gurasoak irakasleen iritziarekin ados ez egotean, haien seme-alaben aurrean ezeztatzen dute irakasleen iritzi edo argibideak, bien arteko tentsioa sortuz.

Gurasoek, batzuetan, haien iritzia emateko edo zerbait eskatzeko eta salatze beldurra dute, irakasleak baitira ebaluazioa egiten dutenak, ezagutzaren ahalmena dutelako eta eskola zuzentzen dutelako. Horrek, gurasoek batzuetan haien burua autoritarioa izatea eragiten du haien seme-alabek zer ikasi behar duten eta nola ikasi behar duten inguruan (Cabrera, 2009). Horrek eragiten du familiek erresistentzia ipintzea haien desberdina den seme-alaben irudi bat jasotzera eta onartzera (Jímenez, 2008).

Oztopo egoera anitz hauen barne, beste guraso batzuek nahiago dute seme-alaben hezkuntza prozesuan ez sartzea, eskolan parte hartu gabe, kontsideratzen baitute hori ez dela haien betebeharra (Díaz, 2014).

Nahiz eta familiaren partez hainbat oztopo egon, kontuan izan behar da gurasoek ahalik eta onena nahi dutela haien seme-alabentzat eta haiek dakiten modu onenean hezitzen dituztela umeak. Hori ikusita, ondorioztatu daiteke, familia-eskola erlazio txarra ez dela bakarrik familien erantzukizuna, batzuetan eskolak eragina dauka ere (Potar, 2014).

Eskolak jartzen dituen oztopoak ere ugariak dira. Hasteko, kanpoko inork bere lana zalantzan jarri behar ez duen kontzeptuan sortutako irakasle tradizionalen kopuru handia dago eta hori dela eta, familiek eskolan ekarpen gutxi egin ditzaketela uste dute. Beste batzuk etsita daude familiak inplikatzeko ahalegin hutsarekin eta nahiago dute gurasoen esku-hartzerik gabe lan egin, haien espazio eta funtzioetan eroso dauden heinean. Horrela, bere erantzukizun bakarra klase ematea da (Parra, 2004).

Irakasle batzuk deseroso sentitzen dira haien ohiko lan profesionalaren parte ez den jarduerak egitean; izan ere, ez daukate denborarik eskolaz kanpoko jarduerak, proiektuak edo tailerrak prestatzeko. Horretaz gain, familiak ez dira formakuntza eskasa dutela sentitzen duten bakarrak; irakasle askok harreman hauek alde batera uzten dituzte informazio eta trebakuntza faltagatik eta hori dela eta, gurasoak mehatxu gisa ikusten dituzte, batez ere haiekin lan egitera ohituta ez badaude (Gracia, 2016).

Hortaz, familiek haien seme-alaben hezkuntzan parte hartzeko interesa ez dutela esan aurretik, jakin behar da hauek parte hartzeko aukera errealak dituzten eta zer nolako bideak eskaintzen diren hau posible egiteko (Cabrera, 2009).

Aurreko ideia nagusiak laburbilduz, esan daiteke irakasleek eta familiek indarrak batu eta elkarrekin aurrera egin behar dutela hezkuntza proposamenean finkatutako helburuak lortzeko, eta horretarako, beharrezkoa da bi aldeen arteko gardentasuna eta informazioa elkarren arteko konfiantza indartzeko (Sarramona, 2004).

Bukatzeko, esan daiteke oztopo, traba, eragozpen eta gatazka ugariei aurre egin behar zaiela bi instituzioek hezkuntza prozesuan parte hartzeko bideak irekitzeko interesa baldin badago; baina, aldi berean, horietako bat ere ez da gaindiezina eta ez da esku hartzea eragozteko aitzakia baldin eta hezkuntza-jarduera hobetzeko interesa badago (Kñallinsky, 2003).

### **3.3. Familia eta eskolaren harremanaren garrantzia hauren garapen afektibo, kognitibo eta sozialean**

Eskola eta familiaren arteko harremanak ikasleen garapenean nola eragiten duen ikusteko, bi garapen maila desberdinduko dira. Lehenik, lotura duten maila afektibo eta soziala eta bigarrenik, maila kognitiboa.

Garapen afektibo eta sozialak haur bakoitza bizi den gizarteari egiten dio erreferentzia. Ekarpene horrek sozializazio prozesu ugari dakartza berarekin; hala nola, lotura afektiboak eratzea, balioak, arauak eta ezagutza sozialak eskuratzea, gizarteak transmititzen dituen rol eta jarrerak bereganatzea eta izatea; azken finean, pertsona bakoitza bakarra baita. Haurra jaiotzen denetik familia testuinguruan ainguratua dago, bertan segurtasun handiagoa baitu. Baina, ikaslea testuinguru itxi horretatik ateratzen denean, beste testuinguru batzuetan segurtasuna sentitzeko, ezinbestekoa da ikustea bere gurasoek irakaslearekin erlazio ona dutela eta horrela eskola konfiantzazko eremu bat dela transmititu, zeinean seguru egon daitekeen. Horrela, ikaslearen garapen sozio-emozionalaren ateak irekiko dira (Etxebarria, López, Fuentes eta Ortiz, 2001).

Horrekin lotuz, umea zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta premia handiagoa dago familia eta eskola lankidetzan aritzeko; izan ere, adin goiztiarrean ezagutzen oinarriak finkatzen dira eta haurrak bere hezkuntza eta garapena hasten du. Gainera, haurtzaroan haurrek zailtasunak dituzte haien nahiak, beharrak eta sentimenduak adierazteko. Adin horretan, etxetik irteten hasten dira, bere familiarengandik urruntzen dira eta beste haur batzuekin eta kide ez diren helduekin harremanetan jartzen dira. Hori dela eta, bere alderdi sozial eta afektiboa modu egokian garatzeko ezinbestekoa da familia eta eskolaren arteko ulerkuntza

haurren sentimendu eta behar horiek eskolatik identifikatzeko eta pertsonarteko erlazioetan lagundu ahal izateko (Roman, 2013).

Beraz, bi instituzioen arteko elkarrekintza egoki bat egonez gero, bi gaitasun hauei dagokienez, laguntasun eta kide izateko balioak, ikaskuntza aktiboa, emozioen kudeaketa egokia, sozializazioa, pertsonarteko harremanak, komunikazioa, autoestimua eta autonomia garatuko dira. Bestalde, harreman desegokia suertatuz gero, gerta daiteke umeak zailtasunak izatea eskolara egokitzeko eta bertan komunikatzeko (Fernández, 1998).

Garapen kognitiboari dagokionez, familiak eskolako zeregin eta jardueretan parte hartzen duenean, haurrak kognitiboki suspertuagoak eta motibatuagoak daude eta horrek akademikoki hobetzeko aukerak sortzen ditu. Gainera, gurasoak parte hartzean emaitza positiboak ematen dira; hala nola, asistentzia handiagoa, umeen jarreraren hobekuntza eta guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaren hobekuntza (Blanco, 2014). Gainera, Kñallinsky-ren (1999) arabera, ikastetxearekin harreman erregularra duten gurasoen haurrak independenteagoak dira, ekimen maila handiagoa dute eta eskola errendimendu maila handiagoa dute.

Era berean, gurasoek eskolarekin duten erlazioa eragina izango du haien seme-alabek eskolarekin duten erlazioan. Umeak ikusten badu berak ikasten duena haien gurasoek baloratzen dutela eta egiten duen gauzengatik interesatzen direla, umeak ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartuko du (Alfonso, 2003).

Bukatzeko, Kñallinsky-k (1999) bi instituzioen arteko harreman onaren abantaila batzuk deskribatzen ditu. Horiek parte hartzaileen elkar aberastea, gatazken murrizketa, elkartasuna eta erantzukizuna sustatzea, egindako lanaren kalitatea hobetzea, azelerazioa planen formulazioan eta helburu komunitara dedikatzeko bultzada dira.

Horregatik guztiagatik, parte hartzen duten sektore guztiek etekina ateratzen diete parte hartzeari, guztiek lankidetzara, elkartasun, tolerantzia, laguntza eta balioak garatu ditzakete; ikasleek garapen osoa lortzen dute, gurasoak talde batean baloratuta senti daitezke, konfiantza areagotu dezakete, bere buruaz pozik sentitu daitezke, irakasleak motibatuago egongo dira eta ikasleekin denbora gehiago igaroko dute (Blanco, 2014).

## **4. HELBURUAK**

Lan honen helburuak hainbat ataletan banatuko dira. Lehenik eta behin, lan globalaren helburu nagusia hau da:

- Ikastegi bateko familien eta eskolaren arteko erlazioa aztertzea hori nolakoa den behatu eta hobetzeko hainbat proposamen egiteko asmoz.

Helburu nagusi hori abiapuntutzat hartuz, beste zeharkako zenbait helburu zehaztu daitezke:

- Ikastegian ohikotasunez familien parte hartzea ikertzea.
- Familien eta eskolaren arteko kooperazioak haurren hezkuntzarako eta garapen osorako duen garrantziaz jabetzea.
- Familiek eskolarekiko izandako jarreraz hausnartzea eta alderantziz.
- Familien eta eskolaren artean dauden oztopoak identifikatzea.
- Hobekuntza proposamen teorikoak plazaratzea egoera hobetzeko asmoz.

## **5. METODOA**

### **5.1. Prozedura**

Beharrezkoa da azaltzea lan hau nire praktika denboraldian gauzatu zela eta hori egiteko, egindako guztia ikastetxeko tutorearekin eta ikasketa buruarekin adostu zela. Horretarako, azaldu zen hau guztiaren zergatia, zeintzuk ziren helburuak eta horren justifikazioa, zergatik den garrantzitsua familia eta eskolaren arteko harremanari arreta ipintzea eta hau guztia burutzeko zer behar zen adostu zen, bai denbora aldetik, bai kontaktu edo espazio aldetik. Ikastetxeko partaideek asko lagundu zuten prozesu guztia aurrera eramaten eta bere partez asko eman zuten.

Horretaz gain, zenbait ekintza aurrera eramateko, ikastetxeko zuzendariaren baimena behar izan zen. Berari egin beharrekoa behin azalduta, oniritzia eman eta berak erraztu zituen kontaktu eta espazioak. Gainera, elkarrizketen atala gauzatu ahal izateko, gurasoen baimena behar izan zen; elkarrizketak grabatzea ezinbestekoa zen apunteak hartzen ezin zelako guztia jaso eta gainera, elkarrizketatuek esandakoa idatziz gero, epaituak sentituko zirelako. Horrela, guraso zein irakasleen baimena eskatu zen proiektua azalduz eta argi utziz haiek esandakoa soilik lanaren garapenerako erabiliko zela eta ez zela inon argitaratuko edo lanarekin erlazioa ez zeukan beste ezertarako erabiliko.



Behin baimena guztiak lortuta, lehenik, gela bakoitzeko irakasle tutorearekin hitz egin zen eta inkestak haien geletako umeen gurasoei eman ziren. Hori ostiral batean izan zen, asteburuan inkestak bete zituzten eta hurrengo astelehenean umeek haien gurasoen inkestak ekarri zituzten eskolara. Horrela egin zen gurasoak osasun egoeragatik ezin zirelako eskolan sartu. Hori eta gero, elkarrizketak egin ziren; lehenik, ikastetxeko profesionalekin egin ziren; hau da, ikasketa buruarekin eta irakasle tutorearekin eta bigarrenik, ikastetxeko gurasoekin; hots, Eskola Kontseiluko familien ordezkariarekin eta IGEko gurasoarekin. Azken bi elkarrizketa horiek modu telematikoan burutu ziren osasun egoeragatik. Ondoren, datuak bildu eta egoeraren analisia egin zen, zeinaren arabera harremana hobetzeko beharra identifikatu zen.

## **5.2. Ikastetxearen ezaugarriak**

### *a) Angel Ganivet ikastetxea*

Familia eta ikastetxearen arteko harremanaren analisia Angel Ganivet ikastetxean egin zen; konkretuki, Haur Hezkuntzako etapan. Ikastetxe hau Vitoria Gasteizen (Araban) kokatuta dago. Bertan, Haur Hezkuntzako bi zikloak eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloak eskaintzen dira; maila bakoitzak hiru lerro izanik. Hala ere, etapa bakoitza eraikin batean kokatuta dago: Haur Hezkuntzako eraikina Federico Baraibar kalean dago eta Lehen Hezkuntzako Jacinto Benavente kalean. Izan ere, ikastetxe hauek independenteak ziren, baina 1996 urtean elkartu ziren eta Angel Ganivet izena hartu zuten.

Angel Ganivet Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren agindupean dagoen ikastetxe publikoa da eta ikaskuntza doakoa da. Horrekin batera, Angel Ganivet D ereduko ikastetxea da, hau da, irakasgai guztiak euskaraz irakasten dira Gaztelania eta Ingelesa izan ezik. Azken horren irakaskuntza Haur Hezkuntzan 4 urterekin hasten da eta hortik aurrera hurrengo urte guztietan irakasten da.

Ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin jarraituz, oinarrien artean ikastetxearentzat ikasleak dira benetako protagonistak eta ikastetxeko proposamenen hartzailleak. Horrekin lotuz, ikastetxeak kalitatezko hezkuntza-proposamen baten alde lan egiten du eta ikasleen prestakuntza integrala da haien helburu nagusia. Ikaskuntza integral horrekin bat eginez, ezagutza batzuk transmititzeaz gain, ikasleek balio, arau eta jokaera batzuk eskuratzeko lan egiten dute. Gainera, kultura birsortzeko eta gizarte aldaketarako behar diren banakako eta taldeko baldintzak sustatzen dituzte. Azkenik, ikastetxe laikoa den aldetik, kideen artean egon daitezkeen erlijioak errespetatzen dira.

Lan hau familia eta gurasoen arteko harremanean oinarrituko denez, ikastetxeko harremanaren egoera zein den ikusi behar da. Familiek ikastetxean modu ofizialean parte

hartzeko bi modu dituzte: Eskola Kontseilua eta Ikasleen Gurasoen Elkarte. Lehenengoari dagokionez, zuzendaritza taldeak, zuzendariak, ikasketa buruak, udaletxeko ordezkari batek, IGEko guraso batek, ikastetxean matrikulatu diren ikasle batzuen gurasoek, administrazioko ordezkari batek eta irakasle batzuek osatzen dute organo hau. Bertan, zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin harremanak izateko, ikastetxeko funtzionamendu arauak onesteko, irakaskuntza-jardueren programa gauzatzeko eta prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien kudeaketa burutzeko aukera dute. Ikasleen Guraso Elkarte den bigarren aukera dela eta, bestea ez bezala, norberak bere borondatez erabakitzen du horren kide izatea. Bertan, gurasoek zuzendaritza batzarrean, Eskola Kontseiluak sortutako lan batzordeetan, eskolaz kanpoko ekintzen sorkuntzan, ikasturteko plana osatzeko proposamenetan eta gurasoen formakuntzarako eta informazioa emateko ekintzetan parte hartu dezakete.

#### *b) Partehartzaileak - Taldea eta familien ezaugarriak*

Lan hau aurrera eraman zen Angel Ganivet ikastetxeko 4 urteko ikasleen gurasoekin; guztira, 49 umeen gurasoekin. Horietatik, guztiek parte hartu zuten inkestan eta familia bakoitzetik soilik guraso batek parte hartu zuen (34 ama eta 15 aita) lanean. Familia hauetatik, 49tik 38 beste jatorri batetik etorriak dira eta 38 horietatik, 7 ume babesgabetasun-arriskuan egoteagatik, gizarte zerbitzuek haien hezkuntza prozesua gainbegiratzten dute. Zerbitzu honek umeen kargura dauden pertsonen umeak behar bezala zaintzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen laguntzen du. Familien ezaugarri orokorrekin bukatzeko, bi ume tutoretza-zerbitzuan daude haien gurasoak judizialki ezindutzat hartu direlako.

Orokortasunak behin aipatuta, gurasoen seme-alaba kopurua eta seme-alaba horiek eskolan daramaten urte kopurua aipatuko da hurrengo helburuarekin: familien parte hartzea hobeto ulertzea.

Horrela, gurasoen %41ak seme-alaba bakarra du, %32ak bi seme-alaba ditu, %16ak hiru seme-alaba eta %10ak lau seme alaba. Horrela, guraso erdiak baino gehiagok seme-alaba bat baino gehiago dute eta hemen, zehaztapen batzuk egitearren, lanaren parte izan ez diren beste seme-alaba ia guztiak Angel Ganivet-en ikasten ari dira edo ikasi dute. Hala ere, salbuespenak daude beste lurralde batetik etorritako familia batzuekin; seme-alaba helduak dituzten horiek beste eskola batean ikasi dute.

Jasotako datuen arabera, umeek nahiz eta jadanik 4 urte eduki, %43a eskolara urte honetan etorri berria da; hau da, eskolan soilik urte bat daramate. Horrek esan nahi du, ia gurasoen erdia eskolan dagoen lehenengo urtea dela; hots, ikastetxean soilik 6 hilabete daramate gutxi

gora behera, eta hori, eskolan duten parte hartzea oztopatu dezakeen faktore bat da. Horretaz gain, %32arentzat eskola honetan bigarren urtea da eta soilik %24a umea eskolatua egon zezakeen momentutik ikastetxearen parte da.

Familiekin bukatuz, lanean beste lau pertsonak parte hartu zuten. Lehenik, ikastetxeko ikasketa burua, zeina hainbat urtez Angel Ganivet-eko ikasketa burua izan den eta baita irakasle bezala eskolan lan egin duen. Bigarrenik, ikastetxeko 4 urteko gela baten irakasle tutorea; honek, 25 urte darama irakasle gisa; horietatik hamar urte haur eskoletan egon da. Orain, Angel Ganivet-en lanpostu finkoa du eta sei urtez egon da irakasle bezala eskola honetan. Hirugarrenik, Eskola Kontseiluko gurasoen ordezkaria, zeina hori izateaz gain, Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta ikastetxeko ume baten gurasoa den. Azkenik, Ikasleen Guraso Elkarteko guraso bat zeinak bi seme-alaba dituen, biak eskolan ikasten ari direnak; bata Lehen Hezkuntzan eta bestea Haur Hezkuntzan. Hauek guztiak 30-55 urteko adin tartea dute eta euskaldunak dira.

### 5.3. Tresnak

#### *a) Familien eta eskolaren inplikazioa ezagutzeko tresnak*

Eskola eta familien arteko inplikazioa aztertzeko erabili zen tresna nagusia inkestak izan ziren. **Inkesta** datuak biltzeko teknika bat da zeinaren helburua aurretik sortutako ikerketa batetik eratorritako kontzeptuen inguruko datuak lortzea den. Datuak galdetegi baten bidez biltzen dira eta galderak egiteko protokolozko modua parte hartzaileen anonimotasuna mantentzea da (López-Roldán, 2015).

Lanean buruturiko inkesta analitikoa zen, bere helburua arazo bat azaltzea eta deskribatzea izan baita, proposamenak eman ahal izateko. Horretaz gain, inkestan nahiz eta azken galdera ireki bat egon, beste galdera guztiak itxiak ziren. Horrekin batera, inkestan zenbait datu soziodemografiko galdetu ziren familien testuingurua ezagutzeko; hala nola, generoa, seme-alaba kopurua eta seme-alabek eskolan daramaten urteak. Gainera, eskolari buruzko jakintzen inguruan galdetzen zen; esaterako, zuzendaria, ikasketa burua edo IGE ezagutzen zuten. Bukatzeko, inkesta egiteko moduari dagokionez, hau euskara eta gaztelaniazko formatuan egin zen, nahiz eta guraso gehienek gazteleraz erantzun, bietan erantzuteko aukera izateko. Horiek behin sortuak zirenean, paperan inprimatu ziren gurasoei emateko. Hurrengo egunetan, behin beteta, inkestak jaso ziren (1. Eranskina).

Inkestarekin, helburu nagusiarekin bat eginez, guraso eta eskolaren arteko harremanak arakatu nahi ziren. Horretarako, hamar galdera egin ziren:

- Noiz daukazu ikastetxearekin harremana?
- Zure seme-alaben hezkuntzaren inguruko guztia kontuan hartuz, baloratu zure partaidetza ikastetxean (0tik 10era).
- Parte-hartze horri dagokionez, partaidetza mota hauetatik, X batekin markatu zure familiak gehien burutzen dituen ekintzak.
- Defini ezazu zeinen ohikoa den ondorengo erakundeekin duzun komunikazioa.
- Zein da zure ustez oztopo handiena familia-eskola harremanari dagokionez.
- Ikastetxeak familiak kontuan hartzen ditu hezkuntza, gizarte edo kultura gaiak planifikatzeko orduan?
- Zentroak nahikoa kolaboratzen du familiekin honako gai hauen inguruan?
- Marka itzazu, zure ustez, familien eta zentroaren arteko harremana hobetzen lagunduko luketen aukerak.
- Idatzi zure ikuspuntutik zer beste aukerek lagundu dezakete familien eta zentroaren arteko harremana hobetzen.
- Orokorrean, aipatu zure asebetetze maila zure familiaren eta ikastetxearen arteko harremanarekin.

Eskola eta gurasoen arteko harreman hori aztertzeke erabili zen beste tresna bat elkarrizketak izan ziren. **Elkarrizketa** datuak jasotzeko erabiltzen den teknika gisa definitu daiteke. Hori, bi pertsona edo gehiagoren artean egin daiteke eta helburu konkretu bat du normalean. Elkarrizketetan zenbait galdera formulatzen dira helburu hori lortze aldera (Díaz, 2013).

Lana burutzeko egindako elkarrizketa mota erdi egituraturako elkarrizketa zen, izan ere, nahiz eta aurretik galderen plangintza bat izan, momentuko egoerari moldatzen ziren. Horri egokituz, egindako elkarrizketak hainbat multzotan sailkatu daitezke lortu nahi den informazioaren arabera (1. Taula). Lehenik, familia eta eskola harremanaren inguruko informazioa lortzeko. Bigarrenik, eskolak duen inplikazioa aztertzeke. Hirugarrenik, familia eta eskolaren arteko oztopoak identifikatzeko eta azkenik, konponbide posibleak aurkitzeko. Horretaz gain, elkarrizketa guztietan hizketaldiari sarrera bat emateko elkarrizketatuaren testuingurua eta eginkizunari buruz galdetzen zen.

Horrela, 4 pertsona elkarrizketatu ziren (2. eranskina), hau da, ikastetxeko 4D3 gelako irakasle tutorea, ikasketa burua, IGEko guraso bat eta Eskola Kontseiluko gurasoen ordezkaria. Elkarrizketak inkesta egindako aste berean burutu ziren erantzunak ildo berdinean egoteko; izan ere, aste batetik bestera guraso eta eskolaren arteko liskar bat egotekotan, erantzunak

desberdinak izango ziren. Horrela, biak koherenteak eta errealak izateko, aste berdinean burutu ziren.

### 1. Taula. Elkarrizketa gidoi orokorrak.

<b>Familia-eskola arteko harremana arakatzeko galderak</b>	Nolakoa esango zenuke dela erlazioa?
	Noiz daukazu erlazioa haiekin? Zenbatero?
	Zein mailan parte hartzen dute/duzu eskolan?
	Uste duzu eskolak gehiago egin dezakeela parte hartzea sustatzeko?
<b>Eskolak duen inplikazioa ezagutzeko galderak</b>	Eskolaren partez gurasoen parte hartzea bultzatzeko ekintzak sortzen dira?
	Zeintzuk eta zenbatero?
	Ekintza horietan nolakoa da familien parte hartzea? Zergatik?
	Gurasoek aukera daukate ekintza zein proiektuetan erabakiak hartzeko? Zergatik?
	Ekintza horiek egoki kudeatzen dira edo erabilgarriak dira?
<b>Oztopoak aztertzeke galderak</b>	Zein uste duzu dela oztoporik nagusiena familia eta eskolaren arteko harreman on bat sortzeko?
	Eskolak oztopo horiekin amaitzeko neurriak hartu ditu?
	Gurasoek oztopo horiekin amaitzeko neurriak hartu dituzte?
<b>Konponbide posibleak aurkitzeko galderak</b>	Parte hartzea sustatzeko proposamenak egin dira? Zeintzuk?
	Zure ustez, zer egin daiteke familien parte hartzea sustatzeko?

Galderei dagokienez, lau elkarrizketa desberdin egin ziren eta galderak ez ziren berdinak izan irakasle edo gurasoentzat; taulan jarritakoak elkarrizketa guztietan errepikatu ziren galderak dira baina eranskinetan egindako galdera guztiak daude.

Elkarrizketa guztiak irakasle tutorearena izan ezik, giro formalean egin ziren eta hauek haien baimenarekin grabatu ziren, ondoren horiek transkribatu ahal izateko. Horretaz gain, osasun

egoera dela eta, bi gurasoei egindako elkarrizketak ez ziren aurrez aurre egin, baizik eta bat telefonoz burutu zen eta bestea bideodei baten bitartez. Horrek, zenbait galdera egitea zaildu zuen; izan ere, aurrean dagoen pertsona ez ezagutzean bortitza izan daiteke modu zuzen batean galdetzea haien parte hartzeari buruz edo eskola-familia harremanaren inguruko kritika bat egiteko eskatzea. Hala ere, zintzotasunez erantzun zituzten galdera guztiak.

Irakasle tutoreari dagokionez, galderak ez ziren modu zuzen batean egin, baizik eta gelan nengoen bitartean zenbait momentu aprobeixatu nituen galderak egiteko, gaiarekin erlazioa zeukaten momentuak hain zuzen ere. Horrela, jakin nahi nuenaren inguruan luzatu ahal nintzen eta informazio gehiago lortu.

## **6. EMAITZAK**


Orain, ikerketaren emaitzak plazaratuko dira. Atal hau bitan banatuko da, alde batetik, inkesten emaitzen analisia, hau kuantitatiboa da eta bertan, galdera bakoitza sakonki aztertuko da. Bestetik, lau elkarrizketen emaitzen azterketa egingo da; eta azken analisi hori, kualitatiboa da.

### **6.1. Inkesten emaitzak**

Inkesten emaitzekin hasteko, lehenik, esan behar da guraso guztiek parte hartu zutela baina inkestaren hamar galderekin hasi baino lehen, gurasoek eskolari buruzko zeukaten jakintza orokorrak aztertu ziren (3.1. Eranskina). Horietan, %98ak tutorea ezagutzen du, aldiz, beste ikastetxeko langileekin, ehunekoia aldatzen da: %60ak zuzendaria ezagutzen du, soilik %38ak ikasketa burua nor den daki eta erdiak baino gehiagok (%57) ez daki zer den IGE. Ikastetxeko funtzionamenduari dagokionez, %81ak eskolako arauak dakizki, %45ak ekintza berezien inguruan daki eta %75ak ikastetxearen bisita orduak ezagutzen ditu.

Hemendik lehenik ikusi daitekeena gurasoek ikastetxearen inguruan ez daukatela jakintza handirik da; izan ere, erdiak baino gehiagok ez dute ezagutzen ikasketa burua, IGE eta eskolako ekintzak. Horretaz gain, laurden batek ez daki zeintzuk diren bisita orduak eta bosten batek ez ditu eskolako arauak ezagutzen.


Galdetegiarekin hasteko, galderen emaitzak aldagaien arabera antolatuko dira. Horrela, lehenik, *familiek eskolan duten parte hartzea* aztertuko da. Beraz, lehenik, gurasoek ikastetxearekin noiz zeukaten erlazioa galdetu zen, bertako emaitzak hauek izanik.



Erantzunak ikusiz, gehienak, nahiz eta osotasuna ez izan, tutorearekin bilera bat dutenean eskolara bertaratzen dira. Horretaz gain, familien erdia baino pixka bat gehiago arazo bat izatekotan edo informazioa eman behar dutenean eskolara bertaratzen dira. Bukatzeko, soilik laurden batek parte hartu dezakeen bakoitzean hori egiten du. Hemen ikusi daiteke, gurasoak, derrigorrezko bertaratzeaz aparte, ez daudela oso inplikaturik.

Ondoren, gurasoei eskatu zitzaizen haien seme-alaben hezkuntzaren inguruko guztia kontuan hartuz, haien ikastetxeko partaidetza 0tik 10era zintzotasunez baloratzeko. Bertan, batez besteko media 6,061koa izan zen, nahiko baxua.

Jarraian egindako hirugarren galdera bigarrenarekin erlazioa dauka eta horretan, baloraturiko parte hartze horri dagokionez, zenbait aukeren artean, haien familiak burutzen zituen ekintzak markatu behar zituzten.



Hirugarren grafikoaren emaitzak aztertuz, gehien egiten dutena tutoretzetara bertaratzea da arestian ikusi izan den bezala, baina beste emaitzak aztertuz gero, orokorrean, nahiko parte hartze eskasa dago. Bertan, laurden bat ez da haien seme-alaben hezkuntza prozesuan inplikatzeko ezta ez die ikasketekin laguntzen. Jarraitzeko, soilik elkarrizketatuen erdia kurtso hasieran eta kurtsoan zehar egiten diren informazio bileretara joaten da, eta hori, ondoren azalduko diren ekintzen parte hartze baxuaren arrazoia izan daiteke: %72ak ez du eskolako ekintzetan parte hartzen, %86a ez da ikasleen Guraso Elkartearen ezta beste eskolako sailen parte eta %80ak ez du bere laguntza eskaintzen eskolak jendea behar duenean. Azkenik, 21 gurasok esan dute beste gurasoekin eta irakasleekin harremana dutela, baina baieztapen hau nahasgarria izan daiteke; izan ere, izan daiteke hori baieztatzean, gurasoekin harremana izatea eta ez irakasleekin.

Laugarren eta aldagai honen azken galderan, gurasoek sailkatu behar zuten zeinen ohikoa zen haien komunikazioa zenbait erakundeekin (3.2. Eranskina).


- IGEren inguruan, %66ak esan zuen hauekin ez daukala erlazioa ia inoiz, %26ak oso gutxitan eta %8ak ohikotasunez daukala.
- Tutorearekin duten harremana %37ak oso ohikoa dela dio, %49ak ohikoa, %12ak gutxitan ematen dela eta %2ak ia inoiz.
- Irakasleriari buruz galdetzean; hau da, ingeleseko edo musikako irakasleekin dagoen harremana, %8ak oso ohikoa dela dio, %25ak ohikoa, %43ak gutxitan ematen dela eta %24ak ia inoiz.
- Ikastetxeko espezialistekin dagoen harremana %4arentzat oso ohikoa da, %29arentzat soilik ohikoa, %24arentzat gutxitan ematen da eta %43arentzat ia inoiz.
- Zuzendaritza taldeari dagokionez, %6ak ohikotasunez du harremana haiekin, %39ak gutxitan eta %55ak ia inoiz.
- Eskola Kontseiluarekin, %10ak ohikotasunez du kontaktua, %21ak gutxitan eta %69ak ia inoiz.
- Eskolaz kanpoko jardueren arduradunen inguruan galdetzean, %18ak ohikoa dela dio, %23ak gutxitan ematen dela eta %59ak ia inoiz.
- Eskolako beste langileekin dagoen elkarrekintza, hala nola, eskolazaina edo garbitzaileekin, %2ak oso ohikoa dela dio, %8ak ohikoa, %23ak gutxitan ematen dela dio eta %67ak ia inoiz.
- Jantokiko arduradunen inguruan, %4ak dio ohikotasun handiz daukatela erlazioa, %28ak ohikotasunez, %25ak gutxitan eta %43ak ia inoiz.

Datu hauek aztertzeke asmoz, harrigarria da jantokiko arduradunekin, eskolako beste langileekin edo eskolaz kanpoko jardueren arduradunekin dagoen harremana zuzendaritza taldearekin, Eskola Kontseiluarekin edo IGErekin dagoena baino handiagoa izatea. Horren



erantzun posible bat izan daiteke gurasoek soilik haien seme-alabekin kontaktu zuzena duten horiekin harremana izatea. Horregatik, harreman gehiago izan dezakete eskolazainarekin zuzendariarekin baino. Hala ere, hemen, problematika bat ikusten da: gurasoek ez dute ikusten haien seme-alaben hezkuntza prozesua arrakastatsua izateak ez duela soilik zerikusirik umeekin erlazio zuzena duten ekintzekin edo soilik umeekin kontaktu zuzena duten horiekin; baizik eta haiek horretan modu aktiboan inplikatzeko badira (Eskola Kontseilua edo IGErekin esaterako) askoz positiboagoa izan daiteke.

Jarraitzeko, hurrengo aldagaia *familia eta eskolaren arteko erlazioaren oztopoak* ziren eta bertan, eskola eta familien arteko oztopoen inguruan galdetu zen, hauek izanik gehien markatu ziren erantzunak.



Grafiko honetan aipagarriak dira zenbait puntu. Lehenik, herenak baino gehiagok uste du hizkuntzak arazo bat suposatzen duela eskolarekin harremanetan jartzerako orduan. Jarraitzeko, grafiko honetan ikusten da familiek ez dutela haien burua erruduntzat hartzen eta bai eskola; izan ere, ia erdiak uste du komunikazio falta dagoela irakasleen partez zenbait mezu eta ekintza helarazterakoan eta baita irakasleen interes falta dagoela familien egoera ulertzeko. Horrekin bat eginez, erdiak ere uste du eskola eta familien arteko interesak ez dutela bat egiten.


Horrekin ikusi daiteke familiek eskolaren gain jartzen dutela harremana behar bezalakoa ez izatearen pisua eta gehiengoaren ustez (%82), familien jarrera eskolarekiko egokia dela.

Ondorengo aldagaian, *eskolak familiekiko duen inplikazioaren* inguruan galdetzen zen. Hemengo lehenengo galderaren emaitzak aurrekoan esandakoarekin bat egiten du. Bertan galdetzen zen ea haien ustez eskolak familiek kontuan hartzen dituen hezkuntza, gizarte, kultura eta aisialdi gaiak planifikatzeko orduan. Erantzunean %47ak baietz uste du eta %53ak ezetz. Horrela, goian aipaturikoa konfirmatzen da, familiek ez dute uste eskola behar bezala inplikatzela dela haiekin.

Hori eta gero, (3.3. Eranskina) familiei galdetzen zitzaizkien zentroak nahikoa kolaboratzen duen zenbait gairen inguruan. Lehenengo puntuan banakako elkarrizketetan eskolak familien parte hartzea errazten zuen ala ez galdetzen zen eta hemen, %92ak baietz uste du. Bigarreanean familien eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzearen inguruan, %53ak eskolak nahikoa laguntzen duela uste du. Hirugarrenik, %78ak uste du eskola ez dela familiekin lankidetzan aritzen proiektu akademikoetarako dagokienez. Laugarrenik, %59ak uste du eskolak ez duela parte hartzen familiekin data berezietan; hala nola, Gabonetan. Bostgarrenik, haien seme-alabekin arazo bat sortzen denean, %71ak uste du eskolak jakin bezain pronto kontaktuan jartzen dela familiekin. Seigarrenik, %67ak uste du bileretara joan ezin direnean, bertan landutako informazioa beste bide batzuen bidez egoki helarazten dutela. Azkenik, %90ak uste du eskolak ez dituela adostasun galderak egiten erabaki garrantzitsuetan.

Zazpigarren galdera honen erantzunak, aurreko bi galderen erantzunen bide berdinetatik doaz, familiek ez dute uste eskolak ahal duen guztian familiekin elkarlanean aritzen denik ezta haien iritzia kontuan hartzen denik.

Hurrengo aldagaian *familia eta eskolaren arteko harremana hobetzeko konponbide* posibleen inguruan galdetzen zen, erantzunak hauek izanik.



Erantzunak, arrakasta tasaren arabera sailkatuko dira; hau da, lehenik jende gehien aukeratu dituenak konponbide posible bezala. Hasteko, %80ak pentsatzen du harremana hobetuko zela familiek ekintza soziokulturaletan parte hartzeko aukera izatean eta horrekin batera, %67ak eta %63ak uste dute, familiek eta eskolak ekintzak batera planteatzea eta horien inguruko adostasun galdetegiak egitea egokia izango litzatekela. Hortaz, gehien hautatuak izan diren hiru erantzun hauetatik ondorio argi bat atera daiteke: familiek uste dute eskolak inori galdetu gabe sortzen dituela ekintzak eta proiektuak; hots, familien iritzia horiek sortzeko ez dela kontuan hartzen.

Jarraitzeko, agertzen den beste konponbide bat kurtsoan zehar informazio bilerak egitea da eta horrekin batera, ikastetxeko lan talde eta erakunde desberdinekin informazio bilerak antolatzea. Horretaz aparte, eskolan dauden beste hizkuntza bat hitz egiten duten pertsonen haien hizkuntza ulertzeko beharra adierazten dute. Erantzun horiekin, ondorioztatu daiteke familiak galduta sentitzen direla eta informazio gehiago izan nahi dutela eskolan lantzen diren ekintzen inguruan.

Aldagai honen hurrengo galdera irekia zen eta familiek idatzi behar zuten zein beste aukera egon daitezkeen harreman hau hobetzeko. Horietatik, esanguratsuenak eta gehien errepikatu zirenak hauek izan ziren:

- Eskolaz kanpoko ekintza gehiago proposatzea non familiek parte hartu dezaketen.
- Familiak eskola proiektuen parte bilakatzea.
- Gurasoei laguntzeko ikastaroak sortzea.
- Elkarrizketa informalak sortzea.
- Baterako proiektuak sortzea.
- Ikasgelan modu aktiboan parte hartu ahal izatea.

Ikusitako erantzun guzti horiek gauza argi bat erakusten dute: familiek eskolan parte hartu nahi dute eta hori egiteko baliabideak edo aukerak izanez gero, egingo zuten.

Azken galderan eta aldagaian, *ondorio* gisa familiei galdetu zitzaien eskola eta familien arteko harremanarekin haien poztasun maila 0tik 10era kalifikatzeko eta horretan, batez besteko nota 6,3 izan zen; ez oso altua ez oso baxua, nolabait erakusten du ez daudela ados harremanaren kudeaketarekin baina onartzen dutela.

## 6.2. Elkarrizketen emaitzak

Elkarrizketen emaitzen azterketa, lau ataletan banatuko da, atal bakoitza elkarrizketa bakoitzarentzat hain zuzen ere.

Lehenik, *irakasle tutoreari* egindako elkarrizketatik (2.1. Eranskina) ateratako emaitzak plazaratuko dira. Hasteko, honek nahiz eta bere erlazioa gurasoekin oso ona dela kontsideratu, haiekin soilik sarrera eta irteeretan kontaktua duela baieztatzen du eta, horretaz gain, onartzen du parte hartzen ez duten eta elkarrizketa indibidualetara joaten ez diren hainbat guraso daudela. Parte hartze eza horren arrazoia guraso hauek beldur asko diotela irakasleak haien seme-alabei buruz esan behar duenari dela dio; izan ere, askotan seme-alaba nagusiagoak eskolan izan dituzte eta kasu hauetan irakaslearekin erlazioa ez da ona izan. Horrela, nahiago dute seme-alaba honen irakasle berriari buruz ezer ez jakitea zerbait txarra entzutea baino.

Horretaz gain, gurasoek parte ez hartzeko beste zenbait faktore daudela dio. Alde batetik, gurasoen partez hizkuntza ezjakintasuna, kultura bateraezintasuna eta gogo falta dagoela dio, baina, bestetik dio, eskolak orain dela urte batzuk erabaki zuela familiak ez sartzea hainbeste geletan eta hauek ez izatea hezkuntzaren hain parte. Hori, momentu horretako eskolako zuzendarien ustez gurasoek botere gehiegi zutelako eta irakasleen lana baldintzaturik ikusten zelako gertatu zen; irakasleek ezin zutelako nahi zutena egin geletan eduki edo jarduteko moduari dagokionez. Horretaz gain, pandemiak sorrarazi duen osasun egoera parte ez hartzeko beste faktore nagusi bat da, horren erruz, gurasoak ezin direlako eskolan sartu eta ekintzak bertan behera geratu dira.

Ekintza horiei dagokienez, irakasleak komentatzen du pandemia aurretik gurasoak geletan sartu ahal zirela umeei akonpainamendua egiteko eta horretaz gain, jolastorduan familiek jolasak antolatzen zituzten eta horren ostean, batzuetan, haien lurraldeetako jakiak ekartzen zituzten patioan denek dastatu ahal izateko. Hala ere, hori oso azalekoa zela eta guraso asko ekintzetara ez zirela joaten komentatzen du irakasleak.

Konponbideei dagokienez, irakaslearen aburuz, familien gainean egotea da konponbide onena; izan ere, intsistituz gero, azkenean parte hartzen dutela dio.

Bukatzeko, bi ondorio nagusi ateratzen ditu. Lehenena, irakasleei harremanaren arduraren guztia uzten dietela da. Bigarrena, familiak eskolan inplikatzeko, haien seme-alaben hezkuntza prozesua garatzen lagunduko lukeela da; zeren eta kontrakoa gertatuz gero, gelan parte hartzen ez duen guraso bat izatean, ume hori modu batez baztertuta geratzen da.

Bigarrenik, *ikasketa buruari* egindako elkarrizketatik (2.2. Eranskina) hauek dira ateratako emaitzak. Hasteko, berak familiekin kontaktu zuzena ez duela aitortzen du, bere aburuz, hori, irakasleen lana delako. Hala ere, ikasketa buru gisa familiekin beste kontaktu mota bat duela dio; hala nola, ikastetxera etorri berri diren familiei harrera egitean, familiek zenbait zerbitzu eskatzen dituztenean haiekin eta zerbitzuaren ordezkariekin elkarrizketak izatean edo IGEekin bilerak izatean. Horrekin lotura eginez, bere aburuz, ikusi duenaren eta irakasleekin hitz egindakoaren arabera, familien parte hartzea eskolan oso eskasa da. Parte hartze baxu hori kuantifikatzeko, datuetan oinarrituz, osasun egoera agertu baino lehen, eskolak ekintzak planteatzen zituen eta horietan, 200 familietatik 35 gurasok parte hartzen zuten.

Parte hartze baxu horren zergatian, ikasketa buruak irakasleak aipaturiko arrazoi berdina komentatu zuen. Bere esanetan, bere aurretik egon zen zuzendaritza taldeak erabaki zuen familiek zeukaten parte hartzeko askatasuna moztea. Hori konpontzeko, bera sartu zenean kontseilu, IGE eta irakasle guztiekin zenbait ekintza sortzea erabaki zuen. Horrela, familiek patio jolasak antolatu zituzten, haien lurraldeetako bazkari tipikoa ekartzen zuten eta ostiralero patioa eta gero antzezpenak egiten ziren eskolan; azken horretan, familia batzuk zerbait kontatzera edo nahi zuten antzezpena egitera joaten ziren. Ekintza horien aldizkakotasunari dagokionez, orain, bertan behera geratu dira, baina lehen, nolabait libreka zen; gurasoek nahi zutenean parte hartzen zuten. Bere esanetan, ekintza horien partaidetza, beste gauzetan bezala, eskasa zen, IGEko guraso guztiak bertaratzen ziren baina hortik kanpo, modu aktiboan, 15 guraso ziren parte hartzen zutenak.

Beste ikuspuntu batetik ikusita eta parte hartze eskas hori ulertzeko ere, ikasketa buruak esan zuen hezkuntzarekin erlazioa duten ekintza soziokultural hauek aurrera eramateko soilik kontseiluko familien ordezkariekin eta IGEekin adosten direla eta bertan ekintzak eztabaidatzen direla akordio batera ailegatu arte. Beraz, horren parte ez diren guraso guztiak erabaki horietatik kanpo daude. Beste modu batean ikusita, agian gurasoek ez dute parte hartzen haien interesekoak ez diren ekintzak proposatzen direlako eta guztien iritzia eskatuz gero, parte hartuko lukete.

Parte hartze eskasarekin amaitzeko, irakasleak dio politika aldaketa horrek min asko egin ziola gurasoen parte hartze dinamikari eta orain askok ez dutela parte hartu nahi. Nolabait pentsatzen dute eskolan ikasi dezaketen guztia ikasten dutela eta ez dira ezertaz arduratzen. Hau da, eskolari garapen intelektuala uzten diete haiek beste garapenetaz arduratzen diren bitartean eta ez dute ikusten biak bateratzeak izan dezakeen indarra.

Familia eta eskolaren arteko harremanaren oztopoei dagokienez, bere aburuz, kulturarteko talka, hizkuntza eta familien interes falta dira nagusiak. Horrekin batera, eskolak horiekin

amaitzeko neurriak hartu dituela dio; hala nola, itzultzaile bat eskatzea, nahiz eta eraginkorra ez izan itzultzaile asko beharko zirelako.

Konponbideei dagokienez, ezezko ikuspegi batetik esaten du ia ezinezkoa dela familien parte hartzea lortzea; izan ere, gurasoak ohitu dira parte ez hartzera eta erosotasun horretatik ateratzea erronka bat da. Hala ere, konponbidea patio jolasetan eta ekintzetan egon daitekeela dio.

Bukatzeko, ondorio gisa dio eskolaren partez gehiago egin dezaketela, baina askotan dirua sartu dutela porrota izan diren ekintzetan; beraz, orain ez dutela hainbeste diru sartzen gaizki aterako diren jardueretan.

Hirugarrenik, *Eskola Kontseiluko familien ordezkariari* egindako elkarrizketatik (2.3. Eranskina) ateratako emaitzak hauek dira. Hasteko, guraso eta familien arteko erlazioa, bere esanetan, penagarria da. Beste modu batean esanda, modu aktiboan parte hartzen duten guraso bakarrak IGE n daudenak direla dio, baina, Haur Hezkuntzan horren parte direnak oso guraso gutxi dira eta hortik aparte, partaidetza oso baxua da.

Ikastetxeko zenbait langileen inplikazioari dagokionez, lehenik, irakasleak normalean harremana izateko eta elkarrizketak izateko nahiko prest daudela dio. Ikasketa buruaren eta zuzendariaren inguruan, familiarekin nahiz eta aurrez aurreko kontaktua ez izan, bileretan familien egoeraz kezkatzen dira. Hala ere, hemen argitzen du bere ustez, irakasleak askoz gehiago inplikatzeko direla, haiek baitira umeekin egunero kontaktua dutenak. Dena den, argitu behar da hori guztia kontseiluko ordezkariaren ikuspegitik esaten duela eta ez beste gurasoen ikuspegitik.

Orain aipaturiko kontseiluko ordezkariaren lan horren inguruan, bilerak hiru hilean behin egiten direla dio eta horietan zuzendariarekin, ikasketa buruarekin, ikastetxeko administrazioaren arduradun batekin, udaleko ordezkari batekin, lau irakasleekin eta beste gurasoekin elkartzen dira. Bilera horietan egiten denaren inguruan, ikastetxean hartzen diren erabaki garrantzitsu guztiak kontseiluaren oniritzitik pasatzen direla dio, haiek dira nolabaiteko filtro bat. Hemen aitortzen du familiei eskatzen zaion denbora normalean ez dela asko izaten.

Ondoren, gurasoen hezkuntza-proiektu, ekintza soziokulturaletan zein eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko aukeren inguruan galdetu zen eta bertan, erdizka parte hartu dezaketela dio. Hezkuntza-proiektuari dagokionez, gurasoek egina dagoen hezkuntza-proiektu bat jasotzen dute eta haiek egin dezaketena aldaketak proposatzea da, hori sortzeko ez dute batera lan egiten. Horretaz gain, proiektu horren gain aldaketak proposatzen dituzten gurasoek soilik klaustroan daudenak dira, hortik kanpokoek ez dute botererik bertan zerbait

aldatzeko. Horretaz aparte, ekintzak eta eskolaz kanpoko jarduerak IGEren ardura direla dio; haiek proposatzen edo sortzen dituzte eta batzuetan kontseiluko gurasoek bileretara eztabaidatzeko eramaten dituzte.

Harreman honek izan dezakeen oztopoen inguruan ere galdetu zen eta bertan, bere aburuz, oztopo nagusia guraso eta eskolaren arteko interes eta espektatiben desberdintasuna da; izan ere, familia askoren ustez, haien seme-alaben garapen guztia eskolaren ardura da eta bertan arazoren bat egonez gero, eskolarekin haserretzen dira eta haien arteko talkak sortzen dira. Horrekin batera, uste du bien partez gehiago jarri daitekeela erlazioa hobea izateko: familien partez enpatia gehiago izatea eta eskolaren partez jarduera desberdinak proposatzea.

Konponbidea, patio jolasen antolaketaren berreskurapenean, gurasoentzat sorturiko kursoetan eta normaltasunera bueltatzean dagoela dio.

Azkenik, ondorio gisa elkarrizketatuak dio bere kritika nagusia gurasoei dela, gurasoek gurasoen ardura diren ekintza eta eginbeharretan gehiago parte hartu beharko zutelako. Horretaz gain, gurasoek haien seme-alabengan itxaropen errealistak izatea eskatzen du, eta horrela irakasleak ez errukitzea horien hezkuntza prozesuan arazoren bat egonez gero.

Laugarrenik, *IGEko gurasoari* egindako elkarrizketatik (2.4. Eranskina) emaitza hauek atera ziren. Hasteko, IGEk egiten duen lanaren inguruan, zenbait proiektu aurrera eramaten dituztela dio. Haur Hezkuntzan patio inklusibo baten sorkuntza egin zuten bertan zuhaitz desberdinak landatuz, txirristak konponduz, aterpea jolasteko gune bihurtuz eta argiztapena hobetuz. Hala ere, Lehen Hezkuntzan proiektu gehiago eramaten dituzte aurrera; hala nola, ortuaren sorkuntza. Gainera, IGEk zenbait ekintza proposatzen ditu egun berezietan; hala nola martxoak 8an edo inauterietan. Hala ere, Haur Hezkuntzan IGEko parte diren guraso kopurua oso baxua dela dio.

Horrekin jarraituz, elkarrizketatuak, alde batetik, elkarte bezala eskolarekin duten erlazioa oso ona dela dio, proposatzen dituzten ekintza ia guztiak entzuten baitituzte eta horiek aurrera eramaten direlako. Bestetik, guraso bezala erlazioa ona ere dela dio; ahal duen bakoitzean inplikatzeko dela eskolako ekintzetan. Alabaina, beste gurasoek eskolarekin duten erlazioa hala-nolakoa dela dio; izan ere, guraso askok ez dute ezertan parte hartzen.

Guraso eta eskolaren arteko harremanaren oztopo nagusia gurasoak direla dio; zeren eta gurasoek ez dute eskolako ekintzetan parte hartu nahi. Honen aburuz, askok esaten dute kultura eta erlijio printzipioengatik ezin dutela parte hartu edo ekintzaren funtsa ez dutela ulertzen.

Konponbideen artean, interesen inguruko inkesta bat pasako zuela dio, horrela, guztion nahien araberako ekintzak sortu ahal direla.

Ondorio gisa esan daiteke, eskolak denon inklusioa bermatzeko ekintzak sortu beharko zituela eta horren sorkuntzaren ardura IGErena izan daitekeela, haiek direlako ekintza asko proposatzen dituztenak eta ez uztea eskolari eginkizun guztia.



## 7. ONDORIOAK

Egindako lanari amaiera emateko, ateratako ondorio nagusiak eztabaidatuko dira.

Lehenengo helburuari erantzuteko, eskola-familia harremanaren inguruan eskolak eta familiek duten ikuspegia aztertuko da. Hemen, lehenik, familien ikuspegiarekin hasteko, ia gurasoen erdiak uste du interes desberdinak daudela eskola eta gurasoen artean eta interes falta dagoela eskolaren partez familiak ulertzeko. Hau da, familiek ez dute uste eskolan haien iritziak, kultura eta sinesmenak kontuan hartzen direnik. Ikuspegi hau aztertzeko asmoz, hauek nahiz eta nahi izan, zaila dute eskolan parte hartzea hurrengo arrazoiengatik. Lehenik, ikastetxeko familia gehienak beste jatorri batekoak dira eta ia erdiak ez du hizkuntza ulertzen; hortik hasita, ezinezkoa da norbaitek eskolan parte hartzea bertan zer esaten dena ulertzen ez badu. Jarraitzeko, iraganean hauen parte hartzea sustatzeko egiten ziren ekintzetan beste kultura bateko pertsonen estereotipoak goستن ziren eta familia hauen kulturarekin soilik azaleko kontaktu bat ematen zen; izan ere, horietan, soilik haien lurraldeko janari tipikoa lantzen zen. Horretaz gain, nahiz eta eskola laiko bat izan, kristautasunarekin erlazioa duten ospakizun asko egiten dira; hala nola, Gabonak edo Aste Santua. Horietan, eskolak familien parte hartzea eskatzen du baina gehienek ez dute parte hartzen kristauak ez direlako eta, eskolaren erreakzioa, horren zergatia galdetzetik urrun, familiek ez dutela parte hartzen esatea da. Horretarako, Symeouk (2006) esaten duen bezala, beharrezkoa da familien egoerari buruzko diagnostiko batetik abiatzea, eta horri esker, ahalik eta gehien zehaztea lankidetzaren arloan egin beharreko ekintzak zein esku hartzeak.

Horrekin jarraituz, eskolak harreman honen inguruan duen ikuspegia aztertuz, elkarrizketen atalean ikusi den bezala, irakasle zein zuzendaritza taldeak uste du beste familiek ez dutela parte hartzen gogo edo inplikazio faltagatik eta erantzukizun guztia familien gain uzten dute. Hemen, eskolaren partez ez da egon inolako hurbilketarik parte hartzen ez duten familien nahiak, iritziak edo sinesmenak ezagutzeko eta komunikazio falta honek bi aldeen arteko aldea gero eta handiagoa izatea suposatu du; alde batek uste duelako familiek ez dutela parte hartzen gogo faltagatik eta beste aldeak uste duelako eskola ez dela kezkatzen haien nahien inguruan. Hori dela eta, parte-hartzearen kultura sortzeko, parte-hartzeari buruzko iritziak hobetzeko eta familiek zein eskolak parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko hezkuntzan lan egin beharko litzateke, inplikatzeko beldurra galdu dezaten eta norberaren parte hartzea mugatzeari uzteko (Kñallinsky, 2003).

Bigarren helburuarekin bat eginez, bien inplikazioa dela eta, bai eskola eta bai familien partez autokritika falta handia dago. Herasek (2013) aipatzen duen bezala, alde batetik, onuragarria izango litzateke irakasle zein hezkuntza komunitate guztiaren partez pentsamolde aldaketa bat ematea; hauek familien ekarpenak eta nahiak gehiago entzun eta baloratu beharko

lituzkete, haiek baitira ikasleak ondoen ezagutzen dituztenak eta haien hezkuntzan gehien lagundu dezaketenak. Horrekin batera, familiekin enpatikoak izan behar dira, parte hartze eza arazo pertsonalengatik, sinesmenengatik eta epaituak izateko beldurragatik izan daitekeela ulertuz, eta ez interes faltagatik. Bestetik, familiek hezkuntza zentroari buruzko aurreiritziak eta elkarrizketa zein galdetegian ikusi diren esperientzia txarrak alde batera utzi behar dituzte. Sinesmen horietan oinarrituta sortzen diren itxaropenak parte hartzeko moduari era negatiboan eragiten diotelako eta komunikazio eraginkorra eragozten dutelako. Horretarako, gurasoek zuzenean ezagutu beharko lukete irakasleen lana, ikastetxera sartuz, bertan egiten diren hezkuntza praktikak eta irakasleek horiek eraginkortasunez burutzeko dituzten zailtasunak behatuz. Hori eginez ere, aukera zuzena izango lukete haien gustuko jarduerak, ekintzak eta ikuspuntuak plazaratzeko eta bi erakundeen artean proiektuak planifikatzeko.

Planteaturiko hirugarren helburuari dagokionez, familien eta eskolaren arteko kooperazioak haurrengan dituen onurak anitzak direla ikusi izan da; izan ere, familia-eskola harreman positiboaren bidez, umeei eskolako errendimendua igotzeaz gain, jarrera eta portaera positiboak garatzen dituzte. Gainera, harreman horiek hezkuntza-abantaila handiak eskaintzen dituzte, ezinbestekoak baitira ikasleen heldutasun garapenean, haien dimentsio kognitibo zein afektiboan eta portaeran. Hau da, gurasoen eta irakasleen partez egiten den ahalegina saritzen da (Hernández eta López, 2006).

Jarraitzeko, oztupoak identifikatzearen helburuarekin batera, ikerketan ikusi izan den bezala, harreman hori bermatzeko erronkak daude. Costak eta Torrubiak (2007) dioten bezala, nolabait, bien arteko menpekotasun erlazio bat sortzen da eta hori emankorra ez denean hezkuntza prozesua gelditzen dela ematen du. Izan ere, irakasleek gurasoengan konfiantza izatea besterik ez dute etxean eta eskolan egiten denaren arteko koherentzia bermatzeko. Gurasoek, bere aldetik, ez lukete hezkuntza ikastetxeetatik at kontsideratu behar; baizik eta elkarlanean lan egitearen inguruan hausnartu beharko lukete.

Arestian esandakoa, oztupoekin erlazonaturiko beste ondorio batekin erlazonatu daiteke; hori, guraso askok gehiago parte hartzeko aurkaritza dutela da; hots, nolabaiteko aldaketei eta aldaketa horiek egitekotan zer gertatuko denari beldurra diote. Ideia horrek Domínguezek eta Pinok (2009) diotenarekin bat egiten du. Horien arabera, parte hartzen duten familiek parte hartze hori bermatzen den eskoletara lekualdatzen dira eta aldiz, inoiz parte hartu ez duten familiek ez dakite hori nola egin, ia inork ez duelako parte hartzen eta ez dutelako aukera errealik eskolaren parte izateko.

Bukatzeko, konponbideekin erlazioa duen helburuarekin bat eginez, harreman hau hobetzeko kasu konkretu honetarako egokiak izan daitezkeen zenbait proposamen plazaratuko dira. Hemen, emaitzen arabera, familien ia erdiak eskolan urte bat darama, erdiak baino askoz

gehiagok uste du haien iritzia ez dela kontuan hartzen hezkuntza-proiektuak eraikitzerako orduan eta baita erdiak baino gehiagok ere bien arteko interesak oso desberdinak direla uste du; beraz, erantzun horiek abiapuntutzat hartuz, zenbait konponbide proposatuko dira.

- Lehenik eta behin, esan bezala, ikusita familien %43a eskolara urte honetan etorri berria dela eta eskolan horrelakorik egiten ez denik, lehenengo proposamena egokitze aldi baten inplementazioa izango litzateke. Haur batek hezkuntza-erakunde batekin dituen lehen harremanak berarentzat zailak izateaz gain, familientzat ere zailak dira eta mesfidantza, larritasuna eta atsekabea bezalako sentimenduak agertzen dira. Irakasleek sentimendu horiek kontuan hartu behar dituzte, familiekin tratatuz, haien burua adierazteko eta horiek modu naturalean eta beldurrik gabe bizitzeko. Horrek, familiaren eta eskolaren arteko hurbilketa errazten du eta elkarren arteko konfiantzaren alde egiten du (Mariñas eta Rodríguez, 1999). Horrela, familiek elkarrizketak izango zituzten zuzendaritza taldearekin, talde psikopedagogikoarekin, hezitzaileekin eta tutoreekin, bertan, iritzia, proposamenak eta kritikak plazaratzeko. Horretaz gain, familiak gonbidatuko ziren gelara sartzera, ekintzetara eta hezkuntza prozesuen parte bilakatzera.
- Bigarrenik, arestian esandakoarekin bat eginez, gurasoen %67ak eskolarekin batera proiektu akademikoak sortu nahi ditu eta %80ak eskolarekin batera jarduerak soziokulturalak antolatu nahi ditu, beraz, horren aurrean, guraso eta familien artean heziketa-bilerak aurrera eramane daitezke; nolabait, IGE eta kontseilutik at, eskolan ahotsik ez duten horiei ahotsa emateko. Bilera hauek familientzat sortuak dira, haien seme-alaben heziketarekin lotutako arazo desberdinak planteatzeko, proposamenak egiteko eta aldi berean haien sinesmenak, kezkek, bizipenak eta arazoak azaltzeko (Cabello, 2011). Proposamen hau jakintzekin, trebetasunekin edo bestelako baliabideekin lotutako familiei zuzendutako bileretan datza eta hezkuntza zentroan gehiago parte hartzeko interesean eragin dezake, horietan garatzen den inplikazio eta motibazioagatik (Hernández eta López, 2006).
- Hirugarrenik, gurasoen ia erdiak uste du eskola eta familien interesak desberdinak direla eta %63aren aburuz, adostasun galdetegiak harremana hobetzen lagundu ditzakete. Horren aurrean, interesen arabera guraso sare baten sorkuntza egokia izango litzateke; hori, kultura, sinesmen, nahi edo interesen arabera antolatu daiteke. Horrela, familiak eskolaren kide aktiboak sentituko dira sinesmen, iritzi eta pentsaera berdinak dituzten horiekin eta orain iritziarik gabe egon direnak ahalduko lirateke haien seme-alaben hezkuntzaren inguruko parte hartze zuzena izanik (Cabello, 2011).

Sare horrek ez du IGERi lehia egin nahi, baizik eta iritzi desberdinak izan ditzaketen sareak sortzea eta eskolak denak entzutea nahi du, ez bakarrik elkarte bakar batenak.

- Bukatzeko, aipaturikoaz gain, familien parte hartzea lagundu ditzaketen zenbait jarduera aurrera eramanez daitezke. Horien artean, kultura guztiekin bat egiten duten ekintzen sorkuntza, tailerren sorkuntza non familiek parte hartu dezaketen, irteeretan familiak inplikatzeko eta familia eta eskolaren artean sorturiko jardunaldiak aurrera eramanez egon daitezke. Horretaz gain, eskolako irteerak eta sarrerak elkarrekintza gune bihurtu beharko lirateke; nahiz eta ikusi familiek ez dutela denbora askorik horretarako, eguneroko datuak emateko eta jasotzeko eta haurraren jokabidean eragina izan dezakeen funtsezko informazioa lortzeko momentu oso aproposa da.

Horrela, azken ondorio gisa esango nuke gaur egungo hezkuntzak behar duen parte hartzea lortzeko oraindik bide luzea dagoela, baina proposamenak aurrera eramanez gero eta eskola zein gurasoen partez harremana hobetzeko ahalegina eginez gero, sortzen diren oztopoak gainditu daitezke eta aurrera egitea eragingo duten zubiak sortuko dira.

Lanarekin amaitzeko, adierazi nahiko nuke lan honetan lantzen den gaia egungo eta etorkizuneko irakasleentzat esanguratsua iruditzen zaidala; izan ere, hezkuntza zentroetako ohiko edukiak jorratzen ditu, ezinbestekoak direnak irakasle on bat izateko.

## **8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Behin lana bukatuta, eta nahiz eta helburuak bete diren, lanak dituen mugak eta horiei lotutako hobekuntza proposamenak plazaratuko dira.

Mugak direla eta, lanak ikuspegi konkretu bat ematen du Angel Ganivet-eko Haur Hezkuntzako etapan familia eta eskolaren arteko harremanaren inguruan eta ez du Gasteizko beste eskolen ikuspegi orokor bat ematen erlazio honi dagokionez. Beraz, ikerketa hiriko zenbait ikastetxeekin egin izan balitz, elkarrizketa, inkesta eta jarduera gehiago eta beste mota batekoak egin zitezkeen. Horretaz gain, interesgarria izango litzateke beste errealitate batean dauden gurasoekin lan egitea, hau da, ez soilik egokitutako Haur Hezkuntzako etapan daudenean, baizik eta elkarrizketak ikastetxeko beste adin eta klase batzuetara bideratzea ikastetxeko guraso gehiagoren egoera aztertzeke, ezagutzeko eta hobetzeko helburuarekin.

Topaturiko bigarren muga aurten bizitzen ari garen osasun egoera izan da; izan ere, birusak, bi alderdietan eragin du lanean. Lehenik, ikerlana gurasoetan oinarritzen da eta egoera honek eragin du aurten gurasoak eskolan sartu ezin izatea, hauekin zegoen erlazioa protokoloz betetzea eta modu batean, harremana ia bertan behera geratzea. Horrela, nahiz eta proposamenak aurrera eraman nahi izan, soilik modu teorikoan burutu dira, jarduerak ezin direlako martxan jarri gurasoak ikastetxean sartu edo hainbat pertsona elkartu daitezkeen arte. Bigarrenik, elkarrizketak eta inkestak burutzerako orduan, osasun egoerak asko zaildu du guztia. Guraso batzuekin lanaren inguruan hitz egitean guraso asko kutsatzeko beldurratik mesfidatiak zeuden eta horretaz gain, parte hartu zutenek modu telematikoa parte hartu zuten, ezin ginelako ez eskolan ez beste inon elkartu hitz egiteko. Horrekin jarraituz, irakasle eta ikasketa buruari elkarrizketak egiteko gune bat lortzeko, hainbat baimen eskatu behar izan ziren gelak desinfektatzeko eta pertsonen arteko distantzia bermatzeko. Beraz, osasun egoera beste bat izatekotan, aukerak ugarituko ziren, baina momentuko situaziora moldatu behar izan nintzen.

Datuak jasotzeko tresnen inguruan, alde batetik, elkarrizketei dagokienez, erabilitako formatua egokia izan zen, hala ere, zenbait galdera nahiko zuzenak ziren eta gerta daiteke irakasle edo gurasoek egia ez esatea lotsagatik edo haien irudia babesteko. Kasu horietan, egokia izango litzateke alde aurreko konfiantza edo erlazio bat sortzea elkarrizketak hain hotzak ez izateko, baina egoerak hori eragotzi zuen. Bestetik, galdetegia dela eta, zenbaitetan galdera irekien aukera bideratu behar izan zen, agian guraso batzuek ez zutelako bat egiten galdera batzuen aukerekin eta galdera irekien aukera egotekotan, haien iritzia edo ikuspegia plazaratu ahal zuten.

Hobekuntzekin bukatzeko, laneko parte hartzaileen lagina handitzea egokia izango litzateke. Elkarrizketatuen artean, interesgarria izango litzateke parte hartzen ez duen guraso batekin

hitz egitea; hala ere, nahiz eta saiatu, inor ez zegoen hori egiteko prest, hizkuntza aldetik ez zutelako haien burua prest ikusten eta esan bezala, osasun egoerak ez zituelako gauzak erraztu. Hori egin izan balitz, ikuspegi zabalagoa izango nuke gurasoen parte hartze ezaren inguruan.

Horrekin guztiarekin, esan dezaket lan guzti hau oso baliagarria izan dela irakasle bezala formakuntza osatzeko eta bi erakunde hauen arteko harremanak duen garrantzia aitortzeko. Gainera, identifikaturiko mugak nola hobetu daitezkeen jakinda, etorkizunari begira oso interesgarria izan daiteke ikastetxe batean horrelako lana burutzea beti helburu batekin: ikastetxearen eta familien arteko elkarbizitza eta harremana hobetzea.

## 9. BIBLIOGRAFIA

- Aguado, L. (2010). Escuela inclusiva y diversidad de modelos familiares. *Revista Iberoamericana de Educación*, 6 (53), 1-11.
- Alfonso, C. (2003). *La participación de los padres y madres en la escuela*. Graó.
- Alía, E., Blanco, M. A., De la Hoz, M. S. eta Gómez, B. (2015). Escuela de familias: la experiencia del colegio María Inmaculada. *Educación y Futuro: Revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, (12), 51-60. <file:///C:/Users/David/Downloads/Dialnet-EscuelaDeFamilias-2047044.pdf>
- Amador, M. F., Gómez, A. F., Londoño, A. eta Pérez, J. A. (2018). La familia: agente primario en la socialización y consolidación de actitudes. *RIBUC*, (1), 20-23. <https://repositorio.ucp.edu.co/bitstream/10785/5034/1/DDEPDH54.pdf>
- Benítez, M. E. (2008). *La estructura familiar en La familia cubana en la segunda mitad del siglo XX*. Editorial Ciencias Sociales.
- Blanco, M. V. (2014). *Una propuesta de trabajo para implicar a las familias en las escuelas de educación infantil*. Cadizeko unibertsitatea. <http://rodin.uca.es/xmlui/bitstream/handle/10498/16607/16607.pdf?sequence=6>
- Bolívar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, (339), 119-146.
- Cabello, M. J. (2011). La relación entre la familia y la escuela infantil: apoyo al desarrollo de los niños y niñas. *Pedagogía Magna*, (10), 79-84.
- Cabrera, M. (2009). La importancia de la colaboración familia-escuela en la educación. *Innovación y experiencias educativas*, (16), 1-9. [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_16/MARIA\\_CABRERA\\_1.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_16/MARIA_CABRERA_1.pdf)
- Cataldo, C. (1991). *Aprendiendo a ser padres: conceptos y contenidos para el diseño de programas de formación de padres*. Visor.
- Crespillo, E. (2010). La escuela como institución educativa. *Pedagogía Magna*, (5), 257-261.
- Costa, M. eta Torrúbia, R. (2009). Relación familia-escuela: una asignatura pendiente en muchos centros educativos. *Revista participación educativa*, (4), 47-53.
- Dabas, E. (2007). *Compartiendo territorios: relaciones familia – escuela*. V Congreso multidisciplinar sobre trastornos del comportamiento en menores. FUNDARED.

[https://d1wqtxts1xzle7.cloudfront.net/56961831/50ElinaDabas\\_2.pdf?1531163432=&response-content-disposition=inline%3B+filename%3DCOMPARTIENDO\\_TERRITORIOS\\_RELACIONES\\_FAMI.pdf&Expires=1604000535&Signature=B06WGwMMW1-SBWWKvvl6wtpMWCmvXlpxTexk8oT2ubZTHakpJzEw3MI8MLvgs5Hz0I5mIXlgy7fRUrF7yXHle7uTLU6was-dN3VzSUZMP3cZA4NtQQHbHyVNHR4ay-gmCFS5ac9kozzBg--GyRe9S-uWr9gUCAEurkhkMR2zPUwcnbOeKWbnxxBiDIwH4lgVw-0IZkIVK4KwFvrC4OXg4xVVqrGrT33-gloUkRMY~1tzJ4za-bll-poUvLHKtmaDUbtoxN0p6RmExKtyTlyjvDRIS1WDKIm7w2Ngy7KBf7tX80KMIZAPUbcxebLNroZEhQQkhXAYlq9MCVn7W41BXQ\\_&Key-Pair-Id=APKAJLOHF5GGSLRBV4ZA](https://d1wqtxts1xzle7.cloudfront.net/56961831/50ElinaDabas_2.pdf?1531163432=&response-content-disposition=inline%3B+filename%3DCOMPARTIENDO_TERRITORIOS_RELACIONES_FAMI.pdf&Expires=1604000535&Signature=B06WGwMMW1-SBWWKvvl6wtpMWCmvXlpxTexk8oT2ubZTHakpJzEw3MI8MLvgs5Hz0I5mIXlgy7fRUrF7yXHle7uTLU6was-dN3VzSUZMP3cZA4NtQQHbHyVNHR4ay-gmCFS5ac9kozzBg--GyRe9S-uWr9gUCAEurkhkMR2zPUwcnbOeKWbnxxBiDIwH4lgVw-0IZkIVK4KwFvrC4OXg4xVVqrGrT33-gloUkRMY~1tzJ4za-bll-poUvLHKtmaDUbtoxN0p6RmExKtyTlyjvDRIS1WDKIm7w2Ngy7KBf7tX80KMIZAPUbcxebLNroZEhQQkhXAYlq9MCVn7W41BXQ_&Key-Pair-Id=APKAJLOHF5GGSLRBV4ZA)

Del Águila, M. (2014). *Familia y escuela: si conocemos el camino... ¿Qué nos impide caminar?*. Sevilla: unibertsitatea.

<https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/32852/TFG-81%20Mar%C3%ADa%20Sanabria%20Fern%C3%A1ndez.%20Familia%20y%20Escuela%20si%20conocemos%20el%20camino...%20%C2%BFqu%C3%A9%20nos%20impide%20caminar%C2%BF%20%282%29.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Díaz, L. (2013). *La entrevista, recurso flexible y dinámico*. Departamento de Investigación en Educación Médica

Díaz, L. (2014). *La familia entra al aula de infantil. Una realidad posible*. Errioxako Unibertsitate Internazionala.

Domínguez, M. T. eta Pino, M. R. (2009). La participación de las familias en la escuela. *Educación y Futuro*, (20), 197-224.

Domínguez, S. (2010). La Educación, cosa de dos: La escuela y la familia. *Temas para la Educación*, (8), 1-15.

España. Gubernua. (1978). *Constitución Española. Boletín Oficial del Estado*.

Etxebarria, I. López, F., Fuentes, M. J. eta Ortiz, M. J. (2001). *Desarrollo afectivo y social*. Ediciones Pirámide.

España. Gubernua. (2013). *Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa. LOMCE*. (Ley 35/2006). BOE

Fernández, F. (1995). *Participación de padres y alumnos, ¿imposición, moda o reto? La participación de los padres y madres en la escuela. Claves para la innovación educativa*. (45-54). Graó.



- Fernández, I. (1998). *Prevención de la violencia y resolución de conflictos: El clima escolar como factor de calidad*. Narcea.
- Fernández, M. (2007). *Educación es cosa de todos: escuela, familia y comunidad*. Edicions de la Universitat de Lleida.
- Garreta, J. (2015). La comunicación familia-escuela en Educación Infantil y Primaria. *Revista de la Asociación de Sociología de la Educación*, (1), 71-85. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4993813.pdf>
- Gimeno, J. (2000). *La educación obligatoria: su sentido educativo y social*. Morata.
- Gracia, C. (2016). *Relación familia-escuela: Importancia de la comunicación y colaboración*. Zaragoza Unibertsitatea.
- Gómez, A. (2006). La participación de los padres en los centros educativos: coordenadas legislativas. Ministerio de Educación y Ciencia: Secretaría General de Educación.
- González, R. (2015). *Aulas abiertas: La participación de la familia*. Segoviako unibertsitatea. <https://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/1457/1/TFG-B.84.pdf>
- Heras, C. (2013). *Comunicación eficaz entre familia y escuela*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. [https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/7946/TFG%202013\\_Cristina%20Heras%20Elizalde\\_Comunicaci%C3%B3n%20eficaz%20entre%20familia%20y%20escuela.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/7946/TFG%202013_Cristina%20Heras%20Elizalde_Comunicaci%C3%B3n%20eficaz%20entre%20familia%20y%20escuela.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Hernández, M. A. eta López, H. (2006). Análisis del enfoque actual de la cooperación padres y escuela. *Aula Abierta*, (87), 3-26.
- Jiménez, I. (2008). *La relación familia escuela*. SL.
- Kñallinsky, E. (1999). *La participación educativa: familia y escuela*. Las Palmaseko Unibertsitatea.
- Kñallinsky, E. (2003). Familia-escuela: una relación conflictiva. *El Guiniguada*, (12), 71-93.
- López, E. (2011). Funciones de la escuela en el siglo XXI. *Temas para la educación*, (15), 2-4.
- López, S. (2009). *La relación familia-escuela. Guía práctica para profesionales*. CSS.
- López, H. (2016). Los once tipos de familias en México. *Amai*, (6), 26-31.

- López-Roldán, P. (2015). *El proceso de investigación. Metodología de la Investigación Social Cuantitativa*. Dipòsit Digital de Documents, Universitat Autònoma de Barcelona.
- López-Roldán, P. (2016). Metodología de la investigación social cuantitativa.
- Maestre, A. B. (2009). Familia y escuela. Los pilares de la educación. *Innovación y experiencias educativas*, (14), 1-11.  
[https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_14/ANA%20BELEN\\_MAESTRE\\_1.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/ANA%20BELEN_MAESTRE_1.pdf)
- Mariñas, M. J. y Rodríguez, E. (1999). Relación familia-centro escolar: Participación. *Revista Galego-Portuguesa de Psicología e Educación*, (3), 55-68.
- Martín, F. (2000). *La didáctica ante el tercer milenio*. Síntesis.
- Martín, M. I. (2017). Las funciones del AMPA. *Todo*. <https://www.revistatodo.com/las-funciones-del-ampa/>
- Parra, J. M. (2004). La participación de los padres y de la sociedad circundante en las instituciones educativas. *Tendencias Pedagógicas*, (9), 765-787.
- Palacios, J. eta Rodrigo, M. J. (1998). *Familia y desarrollo humano*. Alianza.
- Potar, A. (2014). La relación familia-escuela: un acercamiento a la educación infantil. Kantabriako Unibertsitatea, Kantabria.
- Rivas, S. (2007). La participación de las familias en la escuela. *Revista española de pedagogía*, (238), 559-574.
- Román, S (2013). Participación de las familias en los centros escolares. Valladolid-ko Unibertsitatea. <https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/4655/TFGL%20418.pdf;jsessionid=7F637DD7D0DA6E1646C68773E0BAB8B6?sequence=1>
- San Fabián, J. L. (2006). Participación de las familias y Acción Tutorial: dos puertas para el cambio. Ministerio de Educación y Ciencia: Secretaria General de Educación
- Sarramona, J. (2004). Participación de los padres y calidad de la educación. *Estudios sobre Educación*, (6), 27-38.
- Soriano, E. (2007). *Educación intercultural y migración. Propuestas educativas para la convivencia. Educación para la interculturalidad*. La muralla.  
<https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=tqYRLKDwa2kC&oi=fnd&pg=PA9&dq=Inmigraci%C3%B3n,+interculturalidad+y+convivencia&ots=I3J6tfz0HO&sig=YIhnhILXfEwG>

[voxQVubckSbkql#v=onepage&q=Inmigraci%C3%B3n%20interculturalidad%20y%20convivencia&f=false](#)

Symeou, L. (2006). Capital cultural y social: ¿qué podemos aprender para investigar y reforzar la colaboración entre familia y escuela?. *Cultura y educación*, (18), 2019-229.

Thornburg, K. eta Wise, G. (1978). Home-school relationships: an educational crisis. *Education*, 99, (2), 80-87.

Vizcaino, L. (2010). Funciones de la escuela. *Eduinnova*, (26), 126-129.

## 10. ERANSKINAK

### 1. Eranskina. Inkestak.

#### PARTICIPACIÓN FAMILIAR EN EL COLEGIO ANGEL GANIVET DE EDUCACIÓN INFANTIL

Con la información de esta encuesta se pretende saber cual es la relación de las familias del Colegio Ángel Ganivet de Vitoria con el centro y en caso de que sea necesario, mejorar dicha relación. Todos los datos serán tratados de forma anónima y confidencial. Gracias por su colaboración.

#### INFORMACIÓN PERSONAL

Sexo:  Hombre  Mujer

Número de hijos / hijas en el centro: \_\_\_\_\_

Años que su hijo / hija lleva en el centro: \_\_\_\_\_

#### CONOCIMIENTOS GENERALES SOBRE LA ESCUELA

#### GRADO DE CONOCIMIENTO DEL CENTRO

Conoce al tutor/a de su hijo/a	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No
Conoce al director/a del centro	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No
Conoce al jefe/a de estudios del centro	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No
Conoce el AMPA	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No
Conoce las normas de funcionamiento del centro	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No
Conoce los eventos especiales que se realizan en el centro	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No
Conoce las horas de visita del centro	<input type="checkbox"/> Sí	<input type="checkbox"/> No

#### LA PARTICIPACIÓN DE LAS FAMILIAS EN LA ESCUELA

Marque con una X la opción que más se asemeje a la realidad, marque más de una opción si es necesario.

#### 1. Aparte de la asistencia diaria, ¿cuándo tiene relación con el centro?

- Cuando tengo una reunión con la tutora de mis hijos.
- Cuando tengo que facilitar información importante sobre mis hijos.
- Cuando ha ocurrido un problema relacionado con mis hijos.

- Siempre que tengo oportunidad de colaborar o ayudar con algo.
- Nunca.

**2. Valore su grado de participación en el centro considerando todo lo relacionado a la educación de sus hijos.** (Siendo el 0 ninguna participación y el 10 una participación muy activa).

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

**3. Refiriéndonos a dicha participación, de estas formas de participación escolar, marque con una X la opción u opciones que más realice su familia.**

- Asistir a tutorías individuales con la profesora de mi hijo.
- Asistir a reuniones informativas (véase a principio o a final de curso).
- Colaborar en eventos especiales organizados en el centro (excursiones, carnavales, etc.).
- Apoyar escolarmente / educativamente a mi hijo (deberes, jugar con él, etc.).
- Formar parte de diferentes órganos del centro (AMPA).
- Tomar parte activamente e intentar ayudar en lo que sea posible.
- Tener relación personal con otros padres / madres y con la profesora.

**4. Defina cómo de habitual es su comunicación con las instituciones mostradas**

INSTITUCIÓN	Muy habitual	Habitual	Poco frecuente	Nada frecuente
El AMPA				
Tutor				
El profesorado (profesores de inglés, música, psicomotricidad, etc.)				
Especialistas (logopedas, terapeutas, psicólogos, fisioterapeutas, etc.)				
La dirección				
El consejo escolar				
Responsables de actividades extraescolares				
Otros trabajadores del centro (limpiadores, bedel, etc.)				
Responsables del comedor				

## OBSTACULOS QUE DIFICULTAN LA RELACION FAMILIA-ESCUELA

---

**5. En su opinión, cual crees que es el mayor obstáculo en lo que a la relación familia-escuela se refiere. Marque más de una opción si lo cree necesario.**

- Incompatibilidad horaria debido al trabajo u otras situaciones.
- Desinterés por parte del profesorado por entender la situación de cada familia.
- Desinterés por parte de las familias.
- Falta de comunicación por parte del profesorado hacia las familias.
- Diferencia de intereses entre la escuela y las familias.
- Falta de medios de comunicación por los cuales acceder al tutor o a los servicios del centro.
- Falta de entendimiento respecto al idioma.

## LA IMPLICACION DE LA ESCUELA CON LAS FAMILIAS

---

**6. ¿Consideras que el centro tiene en cuenta a las familias a la hora de planificar temas educativos, sociales o culturales?**

Sí       No

**7. ¿Creéis que el centro colabora / facilita lo suficiente con las familias respecto a los siguientes temas?**

La participación de las familias en entrevistas individuales / tutorías.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
La participación de las familias en actividades extraescolares.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
La colaboración de las familias en proyectos académicos.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
La participación de las familias en fechas especiales como en celebraciones.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
Información inmediata cuando hay algún problema con su hijo.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
Facilitar información por otros medios (e-mail, WhatsApp) cuando no pueden asistir a reuniones.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
Preguntas sobre conformidad a la hora de tomar decisiones importantes.	<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No

## POSIBLES SOLUCIONES PARA MEJORAR LA RELACIÓN FAMILIA-ESCUELA

---

**8. Marca las opciones que consideres que ayudarían a mejorar la relación entre las familias y el centro. Marque más de una opción si lo cree necesario.**

- Realizar reuniones informativas tanto a principio, mediados y final de curso respecto a los objetivos y contenidos que se van a tratar en el curso.
- Tener en cuenta a las familias a la hora de planificar diferentes actividades socioculturales.
- Realizar formularios de satisfacción a las familias sobre diferentes temas tanto educativos y sociales.
- Facilitar a las familias reuniones informativas con diferentes órganos del centro (directores, diferentes profesionales, AMPA) para saber tanto el funcionamiento de la escuela como el de diferentes actividades.
- Realizar cursos o actividades donde las familias puedan participar junto a alumnos y profesores.
- Disponer de un traductor para facilitar el entendimiento a la hora de hacer tutorías individuales o reuniones.

**9. Escriba, bajo su punto de vista, que otras opciones ayudarían a mejorar la relación entre las familias y el centro.**

---

---

---

---

---

---

## CONCLUSIONES

---

**10. En ámbitos generales, mencione su grado de satisfacción con la relación existente entre vuestra familia y el centro (Siendo el 0 muy insatisfecho y el 10 muy satisfecho).**

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----



## ANGEL GANIVET HAUR HEZKUNTZA IKASTETXEKO FAMILIEN PARTE HARTZEA

Galdetegi honen informazioarekin Gasteizko Angel Ganivet Ikastetxeko familien eta eskolaren arteko erlazioa ikertuko da eta, beharrezkoa izatekotan, erlazio hori hobetzeko proposamen bat burutuko da. Inkestan jasoko diren datu guztiak anonimoak izango dira. Mila esker zuen parte-hartzeagatik.

### INFORMAZIO PERTSONALA

Sexua:  Gizona  Emakumea

Ikastetxean dauden seme-alaba kopurua: \_\_\_\_\_

Zure seme-alabak eskolan daraman urte kopurua: \_\_\_\_\_

### FAMILIEK ESKOLARI BURUZ DUTEN JAKINTZA OROKORRAK

#### IKASTETXEARI BURUZKO EZAGUTZAK

Zure seme-alabaren irakasle tutorea ezagutzen duzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Ikastetxeko zuzendaria ezagutzen duzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Ikastetxeko ikasketa burua ezagutzen duzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
IGE ezagutzen duzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Ikastetxeko funtzionamendu arauak ezagutzen dituzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Ikastetxean burutzen diren ekitaldiak ezagutzen dituzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Ikastetxearen bisita orduak ezagutzen dituzu	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez

### FAMILIEK ESKOLAN DUTEN PARTE HARTZEA

X batekin markatu zure errealitatera gehien hurbiltzen den aukera, beharrezkoa izatekotan aukera bat baino gehiago markatu.

1. Eguneroko bertaratzeaz gain, noiz duzu harremana ikastetxearekin?

- Nire seme-alaben irakasle tutorearekin bilera bat dudanean.
- Nire seme-alaben inguruko informazio esanguratsua helarazi nahi dudanean.
- Nire seme-alabekin erlazioa duen arazoren bat dagoenean.
- Zerbaitekin lagundu edo kolaboratu ahal dudan guztietan.
- Inoiz ez.

**2. Zure seme-alaben hezkuntzaren inguruko guztia kontuan hartuz, baloratu zure partaidetza ikastetxean.** (0a inolako partaidetza izanik eta 10a partaidetza oso aktiboa izanik).

0	1	2	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

**3. Parte-hartze horri dagokionez, partaidetza mota hauetatik, X batekin markatu zure familiak gehien burutzen dituen ekintzak.**

- Nire seme-alabaren irakasle tutorearekin banakako elkarrizketara bertaratu.
- Informazio bileretara bertaratu (kurtso hasieran edo amaieran adibidez).
- Ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan parte hartu (irteerak, inauteriak, etab.).
- Nire seme-alaba lagundu hezkuntza arloko ekintzetan (etxeko lanak, berarekin jolastu, etab.).
- Ikastetxeko zenbait sailen parte izan (IGE).
- Ahal dudan guztian lagundu eta modu aktiboan parte hartu.
- Irakaslearekin zein beste gurasoekin pertsonarteko harremana izan.

**4. Defini ezazu zeinen ohikoa den ondorengo erakundeekin duzun komunikazioa.**

INSTITUZIOA	Oso ohikoa	Ohikoa	Gutxitan	la inoiz
IGE				
Irakasle tutorea				
Irakasleria (ingeleseko, musikako, psikomotrizitateko irakasleak, etab.)				
Espezialistak (logopedak, terapeutak, psikologoak, fisioterapeutak, etab.)				
Zuzendaritza taldea				
Eskola Kontseilua				
Eskolaz kanpoko jardueren arduradunak				
Ikastetxeko beste langile batzuk (garbitzaileak, eskolazaina, etab.)				
Jantokiko arduradunak				

**5. Zein da zure ustez oztopo handiena familia-eskola harremanari dagokionez. Beharrezkoa bada, aukera bat baino gehiago markatu.**

- Denbora bateraezintasuna lanagatik edo bestelako egoerengatik.
- Irakasleen interes falta familia bakoitzaren egoera ulertzeko.
- Gurasoen interes falta.
- Komunikazio falta irakasleen partez.
- Ikastetxearen eta familien arteko interes desberdintasunak.
- Komunikazio biderik ez izatea tutorearekin hitz egiteko edo ikastetxeko zerbitzuetara heltzeko.
- Hizkuntzaren inguruko ezjakintasuna.

## ESKOLAREN INPLIKAZIOA FAMILIEKIKO

**6. Zure ustez, ikastetxeak familiak kontuan hartzen ditu hezkuntza, gizarte edo kultura gaiak planifikatzeko orduan?**

Bai       Ez

**7. Zure ustez, zentroak nahikoa kolaboratzen du / laguntzen du familiekin honako gai hauen inguruan?**

Familiek banakako elkarrizketetan / tutoretzetan parte hartzea.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Familiek eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Familien lankidetzat sustatzea proiektu akademikoetan.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Familien parte hartzea sustatzea data berezietan, hala nola ospakizunetan.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Berehalako jakinarazpena zure seme-alabarekin arazoren bat dagoenean.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Informazioa beste bide batzuen bidez helaraztea (posta elektronikoa, WhatsApp) bileretara joan ezin direnean.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Erabaki garrantzitsuak hartzerakoan adostasun galderak egitea.	<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez

## KONPONBIDE POSIBLEAK FAMILIA – ESKOLA HARREMANA HOBETZEKO

---

**8. Marka itzazu, zure ustez, familien eta zentroaren arteko harremana hobetzen lagunduko luketen aukerak. Beharrezkoa bada, aukera bat baino gehiago markatu.**

- Kurtso hasieran, erdian eta bukaeran informazio bilerak egitea ikastaroan landuko diren helburu eta edukien inguruan.
- Jarduera soziokultural desberdinak antolatzerakoan familiak kontuan hartzea.
- Familiei adostasun galdetegiak egitea hezkuntza eta gizarte gaien inguruan.
- Ikastetxeko langile ezberdinekin elkarrizketak antolatzea (zuzendariak, profesional desberdinak, IGE, etab.), bai ikastetxearen funtzionamendua eta bai jarduera desberdinak ezagutzeko helburuarekin.
- Ikastaroak edo jarduerak egitea, familiek ikasleekin eta irakasleekin batera parte har dezaten.
- Elkarrizketa indibidualetan ulermena errazteko itzultzaile bat izatea.

**9. Idatzi zure ikuspuntutik zer beste aukerek lagunduko luketen familien eta zentroaren arteko harremana hobetzen.**

---

---

---

---

---

---

---

---

## ONDORIOAK

---

**10. Orokorrean, aipatu zure asebetetze maila zure familiaren eta ikastetxearen arteko harremanari dagokionez.**

0	1	2	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

## 2. Eranskina. Elkarrizketak.

### 2.1. Eranskina. Elkarrizketa irakasle tutoreari.

#### Elkarrizketatuaren testuingurua eta eginkizuna

- **Hasi baino lehen, zure burua pittin bat aurkeztu dezakezu mesedez?**
- + Bai, ni X (anonimatua mantentzeko) naiz, Haur Hezkuntzako irakaslea, 25 urte daramat irakasle gisa. Ia hamar urtez haur eskoletan egon naiz eta orain eskola honetan lanpostu finko bat daukat eta sei urtez egon naiz hemen.

#### Familia-eskola harremanaren inguruko informazioa

- **Nolakoa esango zenuke dela erlazioa zure gelako ikasleen gurasoekin?**
- + Oso ona, baina irakasle-guraso erlazio guztiz profesionala bat e, ez daukagu lagun erlazioa baina bueno, profesionalismoaren barruan ona.
- **Denak ezagutzen dituzu? (bai aita eta bai ama, soilik bat...)**
- + Ume guztien guraso bat behientzat bai. Kasu batzuetan biak ezagutzen ditut edo baita amonak ere, baina orokorrean haien bila etortzen direnak ezagutzen ditut zeren eta irteeretan haiekin hitz egiten dut.
- **Noiz daukazu kontaktua gurasoekin?**
- + Irteeretan eta haiekin elkarrizketak ditudanean ume bakoitzari buruz hitz egiteko. Lehen patioetan edo zenbait ekintzetan baita ere baina orain soilik horietan.
- **Zenbatero daukazu kontaktua haiekin? (zenbatero egiten dira bilerak adibidez)**
- + Normalean, hiru hilabetero saiatzen naiz haiekin elkartzeko buruz hitz egiteko. Gero baita ere kurtso hasieran bilera bat egiten dugu baina hori ez dut elkarrizketa gisa hartzen denak daudelako. Baina, orokorrean hiru hilabetean behin.
- **Normalean bilera horietara biak (familia horrek bi guraso izatekotan) joaten dira?**
- + Familiaren arabera. Normalean pertsona bakarra etortzen da eta kasu gehienetan ama da elkarrizketak egiteaz arduratzen dena.
- **Parte hartzen ez duten gurasoak daude?**
- + Bai, gaur egun, kurtsoa amaitzeko bi hilabete geratzen dira gutxi gora behera eta oraindik ez dut hitz egin guraso batzuekin. Nahiz eta esan haiekin hitz egin behar dudala aitzakiaren bat jartzen dute edo zuzenean ez dira bilerara etortzen.
- **Zergatik uste duzu dela hori?**
- + Denborarekin konturatu naiz kasu hauek beldur asko dutela irakasleak haien seme-alabei buruz esan behar duenari. Askotan seme-alaba nagusiagoak dituzte eta kasu hauetan irakaslearekin erlazioa ona izan ez denean nahiago dute haien seme-alaba

honen irakasle berriaz ezer ez jakin zerbait txarra entzun baino. Baina normalean kasu hauetan, irakasleekin erlazio txarra izandako aurrekariak daude.

- **Nola kudeatzen duzu gurasoekin harremana? (whatsapp talde bat, abisuen bitartez, deien bitartez, irteeretan...)**
- + Sarrera eta irteeretan, noten bitartez edo baita whatsapp talde bat daukat ere haiekin eta horretan egiten dudana audioak bidaltzea da zeren eta batzuek gaztelera ulertzen dute baina ez dakite irakurtzen beste alfabeto bat kontrolatzen dutelako, arabea gehienek. Gero beste batzuek ez irakurri ez ulertu baina bueno.
- **Eskola honetan hainbat urte daramatzazu; beste urteetako gela desberdinekin konparatuz gurasoen parte hartzea aldatu da edo joera bat dago gutxi/asko parte hartzera?**
- + Begira, eskola honetan 6 urte daramat eta aurrean izaten ari da egoera zailena. Ez gurasoen erruz eta ez gure erruz; baizik eta pandemiak egoera asko zailtzen duela orokorrean. Orain hurbiltzen zara gurasoengana eta distantzia mantendu behar duzu, ezin duzu denekin batera hitz egin, zaila da. Beraz, aurtengo parte hartzea askoz baxuagoa da baina logikoa da puntu batez, ezin dira eskolara sartu ezta parte hartu beste urte batzuetan bezala, beraz parte hartzea gutxitu da.
- **Baita beste eskola batzuetan ere egon zara, honekin konparatuz, gurasoen parte hartzea nolakoa zen?**
- + Beste eskola batzuetan parte hartzea handiagoa zen. Haur eskoletan ateak irekiak zeuden eta gurasoak sartu ahal ziren nahi zutenean, berdinez gero klase erdia bazen. Horrek egiten zuen gelan sartzean zenbait proiektuentzako ideiak elkar trukitzea eta proposamenak guztion artean sortzea; askoz aberasgarriagoa zen. Gainera, beste eskola batzuetan talde elkarrengaitzat familiak inplikatzeko genituen eta haiek etortzen ziren gelara; batzuetan batzuek joan behar zuten pixka bat intzistitza baina denak etortzen ziren.
- **Zergatik uste duzu beste eskoletan gurasoen parte hartzea gutxiagoa/handiagoa dela honekin konparatuz?**
- + Ez dakit, hainbat faktore izan daitezke, hizkuntza, kultura... baina batez ere, gogoak haien seme alaben hezkuntza prozesuan inplikatzeak.

#### Familia eta eskola harremanaren oztupoak

- **Zein uste duzu dela oztoporik nagusia familia eta eskolaren arteko harreman on bat sortzeko?**
- + Nik esango nuke berez eskolan dagoen hizkuntza eta talka kulturalaren oztupoa pasotismoarekin elkartu dela eta batak bestea elikatzen duela zeren eta familia askok

esaten dute ez dutela parte hartzen ez direlako enteratzen. Eta gero gertatzen dena da eskolak orain dela urte batzuk erabaki zuela familiak ez sartzea hainbeste geletan eta ez izatea hezkuntzaren hain parte. Orduan, orain, zuzendari aldaketarekin eta metodologia aldaketarekin saiatzen ari gara berriz familiak eskolaren parte bihurtu baina behin antzinako dinamika hori izanda zaila da berriz familiak bereganatzea.

- **(Zergatik gertatu zen hori?)**

+ Egia esanda ez dakit, momentu horretan beste zuzendari eta ikasketa buru batzuk zeuden ideia nahiko kontserbadoreekin eta erabaki zuten gurasoek botere gehiegi zutela eskolan eta irakasleen lana nolabait baldintzaturik ikusten zela ezin zutelako nahi zutena egin gelatan, eduki edo jarduteko moduari dagokionez. Baina hori da guk dakiguna, errealitatean ez dakit zergatik gertatu zen hori.

- **Eskolak oztopo horiekin amaitzeko neurriak hartu ditu?**

+ Bai, pixkanaka baina bai. Pandemia baino lehen patio jolasak familiek antolatzen eskatu zuten eta noizbehinka familiek haien lurraldeetako jakiak ekartzen zituzten. Hala ere, hori gehienbat familien inizatiba zen eta orain gutxitan gertatzen da baina batzuetan umeei haien familiek egindako te termoak, edariak edo pastelak ekartzen dituzte.

- **Uste duzu eskolaren partez gehiago egin daitekeela familien parte hartzea sustatzeko?**

+ Bai, beti egin daiteke gehiago. Egia da beste eskolekin konparatuz ez dugula asko egiten baina azken finean hori ez dago nire esku.

Eskolak duen inplikazioa familiei dagokienez

- **Eskolaren partez gurasoen parte hartzea bultzatzeko ekintzak sortzen dira?**

+ Orain pandemiarekin ez, baina beste urte batzuetan zenbait ekintza egiten genituen.

- **Zein ekintza egin dituzue?**

+ Bueno lehenik gurasoak sartu ahal ziren geletan umeei akonpainamendua egiteko eta hori eta gero joaten ziren. Baita patioan familiek antolaturiko jolasak egiten ziren. Oso ondo zegoen, zeren eta familiak patioa baino lehen eskolan elkartzen ziren, haien artean elkartzen ziren eta komunitate bat sortzen zuten eta bukatzean hizketan geratzen ziren normalean. Nolabait sare bat sortu zen eta askotan horri esker haien artean laguntzen ziren, baina orain honekin ezinezkoa da.

- **Nor arduratzen da familiei ekintza horietaz informatzeaz?**

+ Gu, irakasleak. Agian zuzendaritzatik nota bat pasatzen digute gurasoei emateko baina askok hizkuntza ez jakitean ahoz komunikatu behar diegu sarrera edo irteeretan.

- **Guraso guztiak joaten dira ekintza horietara?**



- + Ez. Askok ez ziren etortzen.
- **(Gutxi gora behera, zenbat?)**
- + Esango nuke klaseko gurasoetatik erdia ez zela etortzen. Gero segun urtea gurasoen inplikazioa handiagoa da baina normalean parte hartzea ez da oso altua izaten.
- **Uste duzu ekintza horiek modu egokian kudeatu direla edo harremana hobetzeko baliagarriak izan direla?**
- + Bai, guztiz gainera. Askotan gertatzen da beste jatorri bateko pertsonak daudela ikastetxean eta ez dutela ia inor ezagutzen. Beraz, ekintza hauek egitea haientzat oso baliagarria da zeren eta lagunak sortzen dituzte. Horretaz gain, haien seme-alabak lagunak dira eta parkera joan daitezke elkarrekin. Aberasgarria da umeentzat eta familientzat, biek irabazten dute. Hala ere, gehiago egin daiteke, ekintza gehiago.

#### Konponbide posibleak

- **Zure ustez, zer egin daiteke familien parte hartzea sustatzeko?**
- + Nik uste dut haien gainean egon, baina askotan eta hau kritika moduan esaten dut nire buruarengan, askotan, hainbeste intsistitzean eta zutaz paso egiten dutenean, nekatzen zara eta alde batera uzten duzu. Baina nik uste haien gainean egonda, azkenean parte hartzen dutela.

#### Ondorioak

- **Uste duzu familiak eskolaren parte bihurtzea umeen hezkuntza prozesuan lagunduko lukeela?**
- + Bai, asko gainera. Honekin gertatzen dena familia bat eskolan inplikatzeko ez denean umea horretaz konturatu dela. Adibidez, X-ren (anonimatua mantentzeko) gurasoekin hori gertatzen da: zerbait ekarri behar dutenean inauteri edo Agate Deunerako berak ez du ekartzen eta modu batez horrekin lortzen dena umea alde batera geratzea da. Eta hori maila guztietan ematen da, jarduera bat egitean zure gurasoak etortzen ez badira eta besteenak bai, ikasleak hori ikusten du eta triste jartzen da bere aita edo bere ama ez delako etorri besteekin jolastera eta askotan gertatzen da umeak gurasoekin haserretzen direla parte ez hartzeagatik.
- **Zein da zure “kritika” nagusia eskolari eta gurasoei harremanari dagokionez.**
- + Kritika ez dakit den baina kexa esango nuke dela askotan irakasleoi harremanaren ardura guztia uzten digutela eta egia da asko dugula, baina beste erakundeek gehiago egin dezaketela. Irakasleok ezin ditugu gure kabuz jarduerak sortu eta aurrera eramanez, onartu behar dizkigute eta askotan ez dago horretarako gogorik.

## 2.2. Eranskina. Elkarrizketa ikasketa buruari.

### Elkarrizketatuaren testuingurua eta eginkizuna

- **Hasi baino lehen, zure burua pittin bat aurkeztu dezakezu mesedez?**
- + Bai, ni X (anonimatua mantentzeko) naiz, ikastetxeko ikasketa burua eta bueno, orain beste ikastetxe batera lekualdaketa eman didate baina hainbat urtez hemengo ikasketa burua izan naiz eta baita ere irakasle bezala egon naiz hemen lanean.

### Familia-eskola harremanaren inguruko informazioa

- **Zein da zure erlazioa eskolako familiekin?**
- + Ikasketa buru bezala familiekin kontaktua daukat, ikastetxera etorri berri direnei harrera egiten diet, zenbait zerbitzu eskatzen dutenean haiekin eta zerbitzuarekin elkarrizketak izaten ditut, IGErekin bilerak izan ohi ditut baita ere eta kurtso hasierako bileretan ere egon ohi naiz, baina esan behar dut normalean kontaktu zuzena ez dudala, hori irakasleen lana da.
- **Nolakoa esango zenuke dela familien parte hartzea eskolan?**
- + Oso eskasa. Zeren eta askotan kontsideratzen dugu banakako elkarrizketetara etortzea parte hartze izugarria dela eta nik uste dut hori nolabait gurasoen betebeharrak bat dela, haien seme-alaben hezkuntza prozesua benetan emankorra izatea espero badute, askoz gehiago inplikatu beharko lirateke. Askotan planteatzen ditugu ekintzak edo jarduerak, orain ez birusa dagoelako, baina lehen askotan planteatzen genituen gauzak eta ez dakit, 200 familietatik 40 agertzen ziren, esajeratu gabe. Beraz, parte hartzea oso baina oso baxua dela esango nuke.
- **Orokorrean, zein mailan hartzen dute parte familiek?**
- + Ba esan dizudana, tutoretzak parte hartze bezala hartuz gero, bertan bai, gehienak etortzen dira, bueno, batzuk ezta horietara ez dira etortzen, baina bueno, horiek komentariarik gabe. Eta gero, ea, zoragarriak diren familia asko daude eta proposatzen ditugun gauzetan lehenak daude ilaran parte hartzeko prest, baina badakizu gauza txarrekin geratzen garela beti.

### Eskolak duen inplikazioa familiei dagokienez

- **Eskolaren partez ekintzak burutzen dira familien parte hartzea sustatzeko?**
- + Bai, begira, hemen gertatu zena izan zen ni sartu nintzenean nabaritu nuela familiak ez zirela ia sartzeko eskolara eta gero esan zidaten nire aurretik egon zen zuzendaritza taldea erabaki zuela familiek zeukaten parte hartzeko askatasuna nolabait moztea.

Beraz, ni sartu nintzenez kontseilu, IGE eta irakasle guztiekin zenbait ekintza sortzea erabaki nuen. Lehenik, pentsatu genuen gurasoek zenbait patio jolas umeentzat sortzea; horrela, haiek egin zituzten lurzoruan zenbait marrazki txingoka jolasteko edo labirintoak egin zituzten eta horretaz gain, hilabetean bitan gutxi gora behera etortzen ziren zenbait ekintza egitera. Haiek egiten zituzten adibidez eusko kirolak, baloi erreta, sokasaltoak, etabar eta oso ondo funtzionatzen zuen; denborarekin, gero eta guraso gehiago etortzen ziren. Gero, eskolan dibertsitate kultural izugarri handia dago, beraz, okurritu zitzaigun proposatzea haien lurraldeetako bazkari tipikoena ekartzea eta klaseetan banatzen genuen tea, opilak, arroza, etabar eta hau umeentzat ikaragarria zen zeren ikusten zuten nola haien amatxok eta aitaxok besteei haiek egunero jaten zituzten gauzak ematen zieten eta oso aberasgarria zen; nahiz eta gehienek parte ez hartu. Gero, eskola honetan betidanik egon da antzerkia, ostiralero, patioa eta gero, antzezpeneak egiten ziren eta astero talde ezberdinak etortzen ziren. Talde horietako asko gurasoak ziren eta etortzen ziren eta poema bat irakurtzen zuten, batzuetan beste hizkuntzetan ipuinak irakurtzen zituzten, abesten zuten, etabar. Eta hori guztia parte hartzen zuten familiarekin egiten genuen baina orain hori guztia bertan behera geratu da Covidagatik.

- **Zenbatero egiten dira ekintza horiek?**

+ Antzerkia ostiralero, janariarena pixka bat librea zen, gurasoren bat janaria ekartzean horren aurkezpena egiten zen eta banatzen zen eta jolasena hilabetean behin baino gehiagotan egiten zen.

- **Nork diseinatu / proposatu ditu ekintza horiek?**

+ IGE prest dago ekintzak sortzeko eta ideia bat dutenean kontseilura eramaten dute. Bertan, guztion artean oniritzia ematen diegu edo ez eta baietz izatekotan aurrera eramaten dira.

- **Ekintza horiek urteetan zehar errepikatzen dira edo berriak proposatu dira urtero?**

+ Bai, normalean urtero errepikatzen dira. Gero, hori, zuzendari aldaketarekin politika desberdinak daude eta hor bai aldatu daitezkeela.

- **Ekintza horietan nolakoa da familien parte hartzea? (Zergatik uste duzu dela horrela?)**

+ Ba beste gauzetan bezala, eskasa. IGEko guraso guztiak etortzen dira hauetara eta hortik kanpo egongo dira 12-20 familia modu aktiboan parte hartzen dutenak baina normalean oso eskasa da.

- **(Zergatik uste duzu dela horrela?)**

- + Politika aldaketa horrek min asko egin zion gurasoen parte hartze dinamikari eta gero guraso batzuek paso egiten dute guztiz, gehiegizko konfiantza dute gudan eta pentsatzen dute eskolan guztia ikasten dutela, beraz, ez dira ezertaz kezkatzen.
- **Hezkuntzarekin erlazioa duten zenbait proiektu / ekintza soziokultural aurrera eramateko familien iritzia eskatzen da?**
- + Guztiena ez, ezinezkoa delako. Kontseiluan familien ordezkariak daude eta haiekin eta IGErekin gauzak eztabaidatzen dira eta akordio batera ailegatzen gara bozketa baten bitartez.
- **Eskolak eskolaz kanpoko ekintzak proposatzen ditu non gurasoak parte hartu dezaketen?**
- + Eskolaz kanpoko ekintzak daude baina batzuek horietan ez dute parte hartzen. Haur Hezkuntzako umeentzat jolasbide, dantza eta jolas tailerrak, lego eta robotika, ingelesa eta psikomotritzitatea dago. Hala ere, gurasoentzat ez daude ekintzarik, kurtsoei buruzko publizitatea heltzean informazioa helarazten dugu baina listo.

#### Familia eta eskola harremanaren oztopoak

- **Zeintzuk uste dituzu direla familia eta eskolaren arteko harremana oztopatzen dituzten faktoreak?**
- + Horrela, azkar esatearren kulturarteko talka, hizkuntza eta gogo eza.
- **Eskolak oztopo horiekin nolabait leuntzeko neurriak hartu ditu?**
- + Bai, itzultzaile bat eskatu dugu baina egoera askotan desesperagarria da. Adibidez, Txinako mutiko bat heldu berri zen eskolara eta udaletxetik itzultzaile bat eman ziguten, teoriarik Araba osoko txinerazko itzultzaile bakarra zen. Bueno, etortzean, tipoak ez zuen gurasoek hitz egiten zuten dialektoa hitz egiten eta berdina gertatzen zaigu arabearrekin. Beraz, eskolaren partez gauzak egin ditugu baina mirariak oraindik ezin ditugu egin.

#### Konponbide posibleak

- **Zure ustez, zer egin daiteke familien parte hartzea sustatzeko?**
- + Normaltasuna bueltatzean, jolasekin eta lehen egiten genituen gauza guztiekin nik uste dut egoera asko hobetuko dela baina orain arazo berri bat sortu da, gurasoak ohitu dira ia parte ez hartzera eta "erosotasun" horretatik ateratzea oso zaila izango da, baina bueno, egoera amaitzean ikusiko dugu. Momentuz, Covidak jarraitzen duen bitartean esango nizuke ia ezinezkoa dela hauen parte hartzea lortzea.

## Ondorioak

- **Zein da zure “kritika” nagusia eskolari eta gurasoei harremanari dagokionez.**
- + Askotut, eskolaren partez ere gehiago egin dezakegu, baina baita gure aurrekontua banatu behar dugu eta askotan dirua sartu dugu porrota izan diren ekintzetan, beraz, orain ez dugu horretan hainbeste diru sartzeko adibidez, beraz, ez dakit, denok gure partez gehiago eman behar dugu umeen onurako.

### **2.3. Eranskina. Elkarrizketa Eskola Kontseiluko familien ordezkariari.**

#### Elkarrizketatuaren testuingurua eta eginkizuna

- **Hasi baino lehen, zure burua pittin bat aurkeztu dezakezu mesedez?**
- + Ni X (anonimatua mantentzeko) naiz, ikastetxe honetako Eskola Kontseilukoa osatzen duten gurasoetako bat eta, horretaz gain, Bigarren Hezkuntzako irakaslea naiz eta baita X-ren (anonimatua mantentzeko) aita.
- **Zein da zure eginkizuna Eskola Kontseiluko familien ordezkari gisa?**
- + Gure eginkizuna kontseiluan gurasoei garrantzia ematea da. Nolabait eskolan gertatzen diren gauza garrantzitsuak erabakitzean gurasoek pentsatzen duguna plazaratzen dugu eta logikoa denez, botoa ematen dugu.
- **Zenbat urte daramatzazu kontseiluan?**
- + Ni orain dela hiru urte sartu nintzen nire ordezkari zegoen pertsonaren alaba eskola utzi zuelako eta ni sartu nintzen. Ez daramat urte asko baina X eskolan dagoenetik hemen nago. Hala ere, IGEN bost urte daramatzat beste seme nagusiago bat dudalako.
- **Zergatik uste duzu zure eginkizuna garrantzitsua dela?**
- + Pentsatzen dut ezinbestekoa dela gurasoak gure seme-alaben gain gertatuko diren erabaki garrantzitsuen inguruan hitza izatea eta horien gain erabaki ahal izatea. Hau esatean ez dut esan nahi guraso-pinaren alde nagoenik, ezta pentsatu ere, baina bai administrazio kontuak erabakitzeko boterea izan behar dugu.

#### Familia-eskola harremanaren inguruko informazioa

- **Zenbat gurasok parte hartzen dute kontseiluan?**
- + Berez, bileretan lau gaude, baina gu ordezkariak gara. Horretaz gain elkartarekin hitz egiten dugu gauzak adosteko.
- **Nola definituko zenuke Angel Ganivet eskolako irakasleen eta gurasoen arteko harremana?**

- + Kasuak kasu, baina orokorrean ona dela esango nuke. Askotan naiz eta irakasleak saiatu, zenbait familiekin oso zaila da kontaktua izatea edo horiekin erlazio ona izatea. Hau esaten dizut niri gertatu zaidalako, zenbait familiekin hitz egitea elkartearen parte izateko eta haien ezetza jaso, gutaz paso eginez.
- **Nola definituko zenuke ikastetxeko gurasoen parte hartzea?**
- + Zintzotasunez erantzuten badut, desastre bat dela esango nuke. IGEN gauden gurasoak modu oso aktiboan parte hartzen dugu eta beti prest gaude laguntzeko, baina askotan ahazten zaigu IGEko gurasoak ez direla ikastetxeko guraso guztiak, egia esanda IGEN lau katu gaude. Beraz, hortik aparte, parte hartze oso eskasa dela esango nuke.
- **Nola definituko zenuke ikastetxeko irakasleen parte hartzea familiekiko?**
- + Nahiko ona, kasuak kasu, baina irakasleak normalean nahiko prest daude gurekin erlazioa izatera, elkarrizketak egitera edo dena delakoa sortzera. Hala ere, azken boladan ordezkapen ugari egoten ari dira eta ordezkoak inplikatzeko zailagoa da, baina titularrak parte hartzen dute ohikotasunez gurekin.
- **Nola definituko zenuke ikastetxeko ikasketa buruaren parte hartzea familiekiko?**
- + Ez dakit haiekin zuzenean aurrez aurreko kontaktua izango duen edo ez, baina behintzat bileretan bai kezkatzen dela familien inguruko kontuetaz. Hala ere, nik uste dut irakasleak askoz inplikatuagoak daudela familiekin ikasketa burua baino, azken finean irakasleak direlako umeekin egunero dauden pertsonak.
- **Nola definituko zenuke ikastetxeko zuzendariaren parte hartzea familiekiko?**
- + Ikasketa buruarekin esan dizudan berdina esango nizuke, parte hartzea aktiboa dela baina irakasleena handiagoa.
- **Eskolako zein pertsonekin izaten duzu kontaktua normalean?**
- + Beitu, gu bileretan kontaktua daukagu zuzendariarekin, ikasketa buruarekin, ikastetxeko administrazioaren arduradun batekin, udaleko ordezkari batekin, lau irakasleekin eta beste gurasoekin, beti guztiak egon behar dira bilera emateko.
- **Bilerak egiten dituzue?**
- + Bai
- **Zenbatero?**
- + Normalean hiru hilabetetan behin elkartzen gara baina gehiagotan elkartu gaitzke; kontseiluko edozeinek eskatu dezake elkartzea edo zuzendariak bakarrik eskatu dezake. Hiruhileko honetan, adibidez, bitan elkartu gara, bata otsailean eta bestea hilabete honen hasieran.
- **(Eta hori zergatik?)**
- + Lehenengoa izan zen errutina bilera, hiruhilero egiten duguna eta bigarrena izan da aurten zuzendaritza taldearen aldaketa egingo delako eta hautagaiak aurkeztu ziren

bileran, beraz, horren inguruan hitz egiten egon ginen ea zer nolako aldaketak ekarri ahal zituen horrek gure ikastolari zeren batzuetan zuzendariak politikak ezberdinak ekartzen dituzte, baina printzipioz, dena “berdin” jarraituko du.

- **Zeri buruz hitz egiten duzue bilera horietan?**
- + Bueno, laburtzearren, esango nuke ikastetxean hartzen diren erabaki garrantzitsu guztiak kontseiluaren oniritzitik pasatzen direla, gu gara nolabaiteko filtro bat. Adibidez, oraingo zuzendariaren hautaketan parte hartuko dugu eta hona etortzen diren proposamenak eztabaidatzen ditugu egiten dugu. Adibidez, orain dela gutxi euskara indartzeko proposamen bat egin zen eskolan eta hori zein proposamenen bitartez egitea aukeratu genuen denon artean. Euskararen eguna moldatu genuen eta irakasleei gelan egiteko proposamen batzuk helarazi genizkien.
- **Zenbat denbora eskaintzen zaie familiei bileretan?**
- + Segun bilera, baina normalean ez asko, gure eskakizunak IGEren bitartez egiten ditugulako normalean eta ez hemendik; hala ere, zerbait oso garrantzitsua bada, kezka plazaratzen dugu horri buruz eztabaidatzeko. IGEren gauzak ere hemen eztabaidatzen dira.

#### Eskolak duen inplikazioa familiei dagokienez

- **Bileretan gurasoei aukera ematen dizuzte hezkuntza-proiektuetan / ekintza soziokulturaletan / eskolaz kanpoko ekintzetan erabakiak hartzeko? Nola?**
- + Bai eta ez. Adibidez, hezkuntza-proiektu orokorra onartzen da klaustroan, baina klaro, hezkuntza-proiektu hori klaustroan gaudenok onartzen dugu, horrek ez du esan nahi guraso guztiak onartzen dutela proiektu hori zeren askok ez dira horren parte eta beste batzuk ez dira bileretara joaten. Beraz, gu, ikuspegi objektiboenetatik begiratzen ditugu beti proposamenak. Hala ere, hezkuntza-proiektu bat eginda ematen digute eta gu horren gain aldaketak proposatu ditzakegu, guk ez dugu batera lan egiten hori sortzeko. Gero, ekintzak eta eskolaz kanpoko ekintzak IGEren ardura da; horiek proposatzen edo sortzen dituzte eta batzuetan guk bileretara eramaten ditugu.

#### Familia eta eskola harremanaren oztopoak

- **Zeintzuk uste dituzu direla familia eta eskolaren arteko harremana oztopatzen dituzten faktoreak?**
- + Nire ustez, oztopo nagusia eta horrela jakinarazi digute irakasle askok, familiek uste dutela haien seme-alaben garapen guztia eskolaren ardura dela eta hori ez gertatzean familiak irakasleekin edo eskolarekin haserretzen dira eta haien arteko talkak ematen

dira. Orduan esango nuke dela espektatibetan eta interesetan agian desberdintasun handia dagoela.

- **Uste duzu gurasoek gehiago egin dezaketela oztopo horiek gainditzeko?**
- + Bai, nik uste dut enpatia pixka bat izan beharko zutela guraso askok irakasleengatik eta paso ez egitea haien ardura diren gauzetaz.
- **Eta ikastetxeak?**
- + Baita ere, ikastetxearen partez proposamen gehiago egin ahal ziren gurasoen parte hartzea bultzatzeko, jarduera desberdinen bitartez adibidez.

#### Konponbide posibleak

- **Zuen partez, proposamenak egin dituzue eskolari harreman hau hobetzeko edo parte hartzea bultzatzeko?**
- + Bai, orain dela urte batzuk proposatu ziren patio jolasak berriz gurasoak egiteko, zeren eta orain dela urte batzuk ez ziren egiten. Baita ere, baliabideak ez zituzten familientzat IKT kurtso batzuk proposatu genituen, zeren eta aurreko urtean ikaskuntza ia guztia online izan zen eta guraso askok ez zekiten nola mantendu egunerokotasunean erlazioa ikastetxearekin eta dohainik kurtso batzuk antolatu genituen harremana behintzat ez galtzeko. Gero, egun berezietan ere familien parte hartzea eskatzen zen.
- **Zein izan zen emaitza?**
- + Oso positiboa, bileretan komentatu zenaren arabera oso ondo ateratzen zen baina orain egoera honekin dena *en stand by* geratu da.

#### Ondorioak

- **Kontseiluaren partez, zein da zuen kexa / eskakizun nagusia familia eta eskola harremanari dagokionez?**
- + Eskakizuna izango zen gurasoek itxaropen errealistak izatea haien seme-alabengan eta horrela irakasleak ez errukitzea. Eskolari eskatuko nioke gurasoen gainean egotea parte hartzeko eskatuz eta behintzat inizatiba propioz ez bada, behintzat lotsagatik parte hartzea.
- **Zein da zure “kritika” nagusia eskolari eta gurasoei harremanari dagokionez.**
- + Kritika nagusia gurasoentzat izango zen, gustatuko litzaidake gurasoek orokorrean parte hartzea gurasoen eginkizuna diren gauzetan, haien seme-alaben heziketan. Hori, gurasoek eta ikastetxeak pixka bat haien partez jarriz gero, erlazioa pila bat hobetuko litzateke eta gauza oso politak atera daitezke, baina horretarako gogoak egon behar dira, bestela zaila.



## 2.4. Eranskina. Elkarrizketa IGE-ko gurasoari.

### Elkarrizketatuaren testuingurua eta eginkizuna

- **Hasi baino lehen, zure burua pittin bat aurkeztu dezakezu mesedez?**
- + X (anonimatua mantentzeko) naiz, ezagutzen duzun X-ren aita eta beste seme nagusi bat daukat. Baita IGE-ko guraso bat naiz.
- **Zenbat urte daramatzazu IGEen?**
- + 5 urte, nire semea Lehen Hezkuntzara sartu zenean apuntatu nintzen eta hori dela eta, Haur Hezkuntzakoan ere nago.
- **Zergatik erabaki zenuen IGEren parte izatea?**
- + Haiek gonbidatu zidaten, hasiera batean ez nituen gogo askorik oso lanpeturik egon ohi naizelako baina denborarekin horren garrantziaz konturatu naiz.
- **Zer lantzen duzue bertan?**
- + Haur Hezkuntzan zenbait proiektu aurrera eramane ditugu. Proposatzen genien patio inklusibo baten sorkuntza eta onartu zigutenean horrekin hasi ginen. Patioa margotu genuen jolas desberdinekin, zenbait zuhaitz landatu genituen, txirristen gunean zeuden arrailak konpondu genituen eta aterpea umeak jolasteko gune bihurtu genuen, zenbait banku, lur-jolas eta argiztapena sartuz. Baina Lehen Hezkuntzan egia esanda gauza gehiago egiten ditugu zeren eta Haur Hezkuntzan oso guraso gutxi gara. Eskolaz kanpoko ekintzak ere antolatzen ditugu.
- **(Zer egiten duzue Lehen Hezkuntzan?)**
- + Lehen Hezkuntzan orain, Haur Hezkuntzan egin genuen patio inklusiboaren ideia eramane dugu eta horrekin gaude. Futbol eta saskibaloiko zelaien murrak margotu ditugu berriro, belarra dagoen zatian gimkana itsura duen parke bat sortzen ari gara, eserlekuak sortu nahi ditugu eta jolas libreko gune bat sortu nahi dugu. Horretaz gain, baratza sortu dugu ikastetxearekin batera eta bertako ikasleak dira hori zaintzeaz arduratzen direnak eta horrela zenbait proiektu aurrera eramane ditzakete, ere patinete eta bizikletentzako aparkalekuak jarri ditugu, muralak margotu ditugu eta ahazten ari zaizkit gauza asko seguru, baina urte honetan hori da egin duguna.
- **Zenbat gurasok parte hartzen dute IGEen?**
- + Ez dakit zenbatekoa den zifra zehazki baina Haur Hezkuntzan esaterako agian hamar eta Lehen Hezkuntzan gehiago daude, hogeita hamar inguru.
- **Zuen partez familia guztiekin kontaktuan jartzen zarete IGEra sartzeko? Nola kudeatzen duzue elkartean sartzen diren gurasoak?**
- + Elkartean sartu nahi diren familia guztiak sartzen dira, gero bertan logikoa denez elkarbizitza arau batzuk jarraitu behar dira baina ez dira arazorik egoten. Eta guk

ikastetxeari esaten diogu gure informazioa helaraztea familiei kurtso hasieran eta erdian.

#### Familia-eskola harremanaren inguruko informazioa (elkarte bezala)

- **Elkarte bezala, zer nolako erlazioa duzue eskolarekin?**
- + Egia esanda nahiko ona, ikastetxeak gure proposamen ia guztiak entzuten ditu eta aurrera eramaten ditugu, egia esan behar da proposatzen duguna zentzu bat duela eta hobekuntza bat suposatzen duela baina bueno.
- **Elkarte bezala bilerak izaten dituzue eskolarekin?**
- + Bai, elkartekoak zuzendariarekin edo ikasketa buruarekin elkartzen gara proposamen bat dugunean, kexa bat dugunean edo zerbaiten berri emateko.
- **Nortzuk joaten dira bilera horietara?**
- + Joan ahal diren gurasoak, zuzendaria eta ikasketa burua, batzuetan, adibidez baratzaren proposamenera irakasle batzuk etorri ziren baina ez da ohikoena.
- **Elkarte bezala, ahalmena daukazue eskolako barne kudeaketan parte hartzeko? Adibidez, hezkuntza-proiektuetan edo bertan aurrera eramaten diren ekintzetan.**
- + Ez, proiektuetan ez, baina ekintzetan bai. Bueno, are gehiago, adibidez orain izan den 8Mko ekintzak gurasoak proposatu ditugu. Adibidez, proposatu genuen marrazki txapelketa bat egitea eta eskola dekoratu genuen zapi morez betez. Gero inauteri eta beste batzuetan ere parte hartzen dugu, baina proiektuena kontseiluaren kontua da.

#### Familia-eskola harremanaren inguruko informazioa (guraso bezala)

- **Zure kasu pertsonalean, nolakoa da zure erlazioa zure seme-alaben irakasleekin?**
- + Nirea eta nire emaztearena, izugarri ona. Gertua, askotan irteeretan hitz egiten dugu ba minutu bat Xri buruz edo Xk egin duenaren inguruan eta gero gure bizitzaz hitz egiten dugu.
- **Zein momentuetan parte hartzen duzue?**
- + IGEN sortzen ditugun proposamenekin eta bertan sortutako ekintza guztietara joaten, tutorearekin hitz egin behar dugunean, eskolak gurasoak behar dituen zerbaitetarako, adibidez, txango baterako lehenak gara eta gero noski eskolatik zerbait bidaltzen digutenean Xrekin egiteko, egiten dugu eta gustura.
- **Nola baloratzen duzu eskola-guraso harremana?**

- + Orokorrean ez oso ona, ezta txarra ere, baina ona ez da. Guraso askok ez dute ia ezertan parte hartzen. Beraz, orokorrean esango nuke erdipurdikoa dela guraso askoren erruz.

### Familia eta eskola harremanaren oztopoak

- **Zure kasuan, zein esango zenuke dela oztopo nagusia guraso eta eskolaren arteko harremanean?**
- Gurasoek ez dutela nahi eskolak sortzen dituen ekintzetan parte hartu. Askok esaten dute ez dutela ulertzen eta askotan egia da e, gero zenbait erlijioengatik ez dute ondo ikusten inauteriak adibidez, baina haien semeak horietan parte hartzen ez uztean egiten dutena da haien semea baztertu.
- **Eta / IGEko gurasoen kasuan?**
- + Berdina.
- **Uste duzu eskolak gehiago egin dezakeela oztopo horiek gainditzeko?**
- + Egiteagatik agian bai, baina ez dakit zer neurri gehiago hartu daitezkeen zeren eskolaren partez ekintzak proposatzen dira eta parte hartzea oso baxua da, baina agian hori, ekintza gehiago.

### Konponbide posibleak

- **Zuk proposamenen bat duzu eskola eta familia arte harremana hobetzeko?**
- + Nik agian egingo nukeena izango litzateke interesen inguruko inkesta edo zerbait egitea eta horren inguruan ekintzak sortu, zeren eta agian proposatzen diren ekintzak eskolaren partez haientzat ez dute interesik. Beraz, interesak ikusita jarduerak proposatu eta agian parte hartzea igoko litzateke.
- **Eta elkarte bezala, proposamenen bat duzue?**
- + Ez, zeren eta elkartearen erlazioa, gurea, oso ona da haiekin, agian esan berri dizudana (interesen inkesta) proposatuko dut elkartean.

### Ondorioak

- **Zein da zure “kritika” nagusia eskolari eta gurasoei harremanari dagokionez.**
- + Kritika nagusia zenbait gurasok parte hartzen ez dutela da eta “dos no se pelean si uno no quiere” esaldia hona aplikatu ahal dugu, lortu behar dena biak borrokatzea zentzu literarioan da.
- **Elkarte bezala eskakizunen bat duzue eskolarentzat?**

- + Ez.
- **Eta guraso bezala?**
- + Ezta ere.

### 3. Eranskina. Inkestaren emaitzak.

#### 3.1. Eranskina. Eskolako jakintzak.

Tutorea ezagutzen du	Kopurua	Ehunekoa
Bai	48	%97,96
Ez	1	%2,04
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Zuzendaria ezagutzen du	Kopurua	Ehunekoa
Bai	29	%59,18
Ez	20	%40,82
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Ikasketa burua ezagutzen du	Kopurua	Ehunekoa
Bai	19	%38,78
Ez	30	%61,22
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

IGE ezagutzen du	Kopurua	Ehunekoa
Bai	21	%42,86
Ez	28	%57,14
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Ikastetxearen arauak ezagutzen ditu	Kopurua	Ehunekoa
Bai	40	%81,63
Ez	9	%18,37
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Ekintza bereziak ezagutzen ditu	Kopurua	Ehunekoa
Bai	22	%44,90
Ez	27	%55,10
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Bisita orduak ezagutzen ditu	Kopurua	Ehunekoa
Bai	37	%75,51
Ez	12	%24,49
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

### 3.2. Eranskina. Zeinen ohikoa da erlazioa erakunde hauekin.

IGE	Kopurua	Ehunekoa
Ohikoa	4	%8,16
Gutxitan	13	%26,53
la inoiz	32	%65,31
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Tutorea	Kopurua	Ehunekoa
Oso ohikoa	18	%36,73
Ohikoa	24	%48,98
Gutxitan	6	%12,24
la inoiz	1	%2,04
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Irakasleria	Kopurua	Ehunekoa
Oso ohikoa	4	%8,16
Ohikoa	12	%24,49
Gutxitan	21	%42,86
la inoiz	12	%24,49
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Espezialistak	Kopurua	Ehunekoa
Oso ohikoa	2	%4,08
Ohikoa	14	%28,57
Gutxitan	12	%24,49
la inoiz	21	%42,86
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Zuzendaritza	Kopurua	Ehunekoa
Ohikoa	3	%6,12
Gutxitan	19	%38,78
la inoiz	27	%55,10
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Eskola Kontseilua	Kopurua	Ehunekoa
Ohikoa	5	%10,20
Gutxitan	10	%20,41
la inoiz	34	%69,39
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

<b>Eskolaz kanpoko jardueren arduradunak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Ohikoa	9	%18,37
Gutxitan	11	%22,45
la inoiz	29	%59,18
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

<b>Eskolako beste langileak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Oso ohikoa	1	%2,04
Ohikoa	4	%8,16
Gutxitan	11	%22,45
la inoiz	33	%67,35
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

<b>Jantokiko arduradunak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Oso ohikoa	2	%4,08
Ohikoa	14	%28,57
Gutxitan	12	%24,49
la inoiz	21	%42,86
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

### 3.3. Eranskina. Eskolaren kolaborazioa familiekin.

<b>Tutoretzetan parte hartzea erraztu</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Bai	45	%91,84
Ez	4	%8,16
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

<b>Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea erraztu</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Bai	26	%53,06
Ez	23	%46,94
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

<b>Proiektu akademikoetan lankidetzaz erraztu</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Bai	11	%22,45
Ez	38	%77,55
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

<b>Data berezietan familiak parte hartzea erraztu</b>	<b>Kopurua</b>	<b>Ehunekoa</b>
Bai	20	%40,82
Ez	29	%59,18
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Seme-alabekin arazoak daudenean informazioa helarazi	Kopurua	Ehunekoa
Bai	35	%71,43
Ez	14	%28,57
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Informazioa beste bideetatik helaraztea	Kopurua	Ehunekoa
Bai	33	%67,35
Ez	16	%32,65
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>

Erabaki garrantzitsuetarako adostasun galderak egitea	Kopurua	Ehunekoa
Bai	5	%10,20
Ez	44	%89,80
<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>%100,00</b>